BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

4695

EBAZPENA, 2012ko urriaren 3koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena; horren bidez enplegurako lanbide-heziketako azpisistemaren barruko 2012rako diru-laguntzen deialdia argitaratzen da, eskaintzako prestakuntzaren arloan, lehentasunez Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona langabeei zuzendutako prestakuntza-jarduerak egiteko. Jarduera horiek EAEko enpresa-, sindikatu- eta gizarte-ekonomiako elkarte adierazgarrienek emango dituzte. Deialdia Lanbideko Administrazio Kontseiluaren erabaki baten bidez onartu da.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak onartu du, 2012ko uztailaren 27ko bilkuran hartutako Erabakiaren bidez, enplegurako lanbide-heziketako azpisistemaren barruko 2012rako diru-laguntzen deialdia, eskaintzako prestakuntzaren arloan, lehentasunez Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona langabeei zuzendutako prestakuntza-jarduerak egiteko. Jarduera horiek EAEko enpresa-, sindikatu- eta gizarte-ekonomiako elkarte adierazgarrienek emango dituzte. Hala, bada, eta Lanbideren Estatutuetako 10.2 artikuluaren p) idatzi-zatian ezarritakoaren arabera (Estatutuok maiatzaren 22ko 82/2010 Dekretuak onartu zituen) erakunde autonomo horretako zuzendari nagusiari dagokio deialdia argitaratzea.

Adierazitako guztiarengatik,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Enplegurako lanbide-heziketako azpisistemaren barruko 2012rako diru-laguntzen deialdia argitaratzea, eskaintzako prestakuntzaren arloan, lehentasunez Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona langabeei zuzendutako prestakuntza-jarduerak egiteko. Jarduera horiek EAEko enpresa-, sindikatu- eta gizarte-ekonomiako elkarte adierazgarrienek emango dituzte. Deialdia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabaki baten bidez onartu da, 2012ko uztailaren 27ko bilkuran, eta ebazpen honen eranskin gisa jasota dago.

Bigarrena.– Jakinaraztea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango dituela ondorioak laguntzen deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren erabakiak.

Hirugarrena.– Jakinaraztea deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren erabakiaren kontra berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaiola organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 3a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JAVIER RAMOS SALAZAR.

ERANSKINA

ENPLEGURAKO LANBIDE-HEZIKETAKO AZPISISTEMAREN BARRUKO 2012RAKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA, ESKAINTZAKO PRESTAKUNTZAREN ARLOKOA, LEHENTASUNEZ EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PERTSONA LANGABEEI ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA-JARDUERAK EGITEKO. JARDUERA HORIEK EAE-KO ENPRESA-, SINDIKATU- ETA GIZARTE-EKONOMIAKO ELKARTE ADIERAZGARRIENEK EMANGO DITUZTE

Enpleguari buruzko 56/2003 Legeak, abenduaren 16koak, 26. artikuluan adierazten du, Enplegurako Lanbide Heziketaren lege-esparruan, enplegurako prestakuntza-azpisistemaren barruko heziketa-jarduerak lanerako gaitasun eta kualifikazioak lortu, hobetu eta etengabe eguneratzera zuzenduta daudela; horrela, prestakuntza bultzatzen da biztanleria aktiboaren bizitza guztian zehar, pertsonen, enpresen, lurraldeen zein ekoizpen-sektoreen beharrizanak osotasunean aintzat hartuta, betiere.

Orobat, Enpleguari buruzko Lege horrek 19. quater artikuluan (otsailaren 18ko 3/2011 Errege Lege Dekretuak erantsia) honako hau sartzen du pertsona langabeei zuzendutako enplegu-zerbitzu publikoen zerbitzu-katalogoaren barruan: «Enplegurako lanbide-heziketako ekintzak eskaintzea, Profesionaltasunaren Ziurtagiri Katalogoaren bidezko kreditatze ofizialarekin, heziketa-jarduera horiek Kualifikazioen Katalogo Nazionalera atxikita daudenean, bai eta egindako prestakuntzaren lanez kanpoko praktikak sustatzea ere».

Martxoaren 23ko 395/2007 Errege Dekretuak, enplegurako lanbide-heziketaren azpisistema arautzen duenak, hainbat programazio-aukera eta heziketa-eskaintzarako bide ezartzen ditu, azpisistemak lortu nahi dituen helburuetara iristeko beharrezkoak direnak. Dekretu horretan jasota dago, halaber, profesionaltasun-ziurtagiriak lortzera bideratutako heziketaz gainera ziurtagiriei lotuta ez dagoen prestakuntza ere egiteko beharra, lan-merkatuaren eta ekoizpen-sektoreen beharrizan aldakorretara moldatze aldera.

Martxoaren 7ko TAS/718/2008 Aginduak arautu zituen, Errege Dekretua eskaintzaren prestakuntzari dagokionez garatzeko helburua betetzeaz gainera, herri-administrazioek, beren kudeaketa-esparruaren barruan, prestakuntza hori finantzatzeko diru-laguntzen emakida xedatu behar duten oinarriak. Horrez gainera, lanez kanpoko lanbide-praktikak egiteari buruzko arauak ere erantsi ziren testuan, bai eta enplegurik gabeko langileentzako beka eta laguntzak emateko aukera ere.

Maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuak onartzen dituenak, bere 3. artikuluan ezartzen duenaren arabera, erakunde horren eginkizunen artean dago enplegurako prestakuntza-programak kudeatzea.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak hala proposatuta, Administrazio Kontseiluak onartu du, 2012ko uztailaren 27ko bilkuran, enplegurako lanbide-heziketako azpisistemaren barruko 2012rako diru-laguntzen deialdia, eskaintzako prestakuntzaren arloan, lehentasunez Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona langabeei zuzendutako prestakuntza-jarduerak egiteko. Jarduera horiek EAEko enpresa-, sindikatu- eta gizarte-ekonomiako elkarte adierazgarrienek emango dituzte. Hona hemen ezarritako baldintzak:

1. artikulua.– Xedea.

Deialdi honen xedea da 2012rako eskaintzako prestakuntza-jarduerak finantzatzeko diru-laguntzak onartu eta arautzea. Jarduera horiek bertaratze-modalitatekoak izango dira eta Euskal

Autonomia Erkidegoko pertsona langabeei zuzenduko zaizkie lehentasunez, martxoaren 7ko TAS/718/2008 Aginduan ezarritako oinarri arautzaileekin bat etorrita (azken hori Enplegurako lanbide-heziketaren azpisistema arautzen duen martxoaren 23ko 395/2007 Errege Dekretua garatzeko xedatu zen).

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Deialdi honen xede diren prestakuntza-jarduerak finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak 2.000.000 eurokoak dira; horietatik 1.700.000 2012ko ordainketa-kredituaren kontura finantzatuko dira, eta 300.000 euro, 2013ko konpromiso-kredituaren kontura.

3. artikulua.– Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak.

1.– Diru-laguntza jasoko dute 10. artikuluan aurreikusitako hartzaileei zuzendutako prestakuntza-jarduerek, eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoko Prestakuntza Espezialitateen Fitxategian altan dauden espezialitateei dagozkienek.

Prestakuntza-espezialitateen programazioari dagokionez, ibilbide osoak programa daitezke –espezialitatearen ordu guztiak barnean hartzen direnean–, edota ibilbide partzialak programa daitezke –prestakuntza-espezialitateen fitxategian ezarritakoak baino ordu gutxiago programatzen direnean–. Espezialitate modulatuen kasuan, ibilbide partzialak baino ez dira programatuko espezialitateko prestakuntza-modulu bat edo gehiago osatzen direnean.

Diru-laguntza jasotzeko orduan lehentasuna izango dute lehentasunez Euskal Autonomia Erkidegoko langabeei zuzendutako prestakuntza-ekintzak egiteko enplegurako lanbide-heziketako azpisistemaren esparruko eta eskaintza-prestakuntzaren arloko 2012ko diru-laguntzen deialdian eskaini ez ziren prestakuntza-espezialitateek, baldin eta profesionaltasun-ziurtagiri bat lortzeko bidea ematen badute. Deialdi hori Lanbideren Administrazio Kontseiluaren 2012ko uztailaren 16ko Akordio bidez onartu zen (EHAA 2012-08-27).

Profesionaltasun-ziurtagiriaren espezialitateaz gainera, prestakuntza-jarduerek FC0001 «Lanean Txertatzea eta Enplegua Bilatzeko Teknikak» izeneko prestakuntza-espezialitate osagarria ere barne hartu ahalko dute, 15 orduko iraupenekoa, hain zuzen ere.

2.– Deialdi honen xedeetarako, prestakuntza-jardueretan:

«Oinarrizko maila» modulua aplikatzen da prestakuntza zeharkako edo oinarrizko gaiei badagokie, hau da, oinarrizko gaitasunak eta kualifikazioak garatzeko heziketa ematen badu.

«Goi-mailako» modulua aplikatzen da prestakuntzak espezializazioa dakarten gaiak barne hartzen dituenean, eta programazio- edota zuzendaritza-gaitasunak garatzeko heziketa ematen duenean.

3.– Prestakuntza-jarduerak 2012ko ekitaldian hasi beharko dira, deialdi honen ebazpena argitaratzen den unetik aurrera, eta 2013ko irailaren 30a baino lehen bukatu beharko dira.

4. artikulua.– Prestakuntza-jarduerak: gauzatze-eskakizun eta -baldintzak.

1.– Kalitatea bermatzeko metodologikoki onargarritzat jotako ordutegietan emango da prestakuntza. Gehienez ere egunean 8 orduko prestakuntza jaso ahalko dute parte-hartzaileek, nahiz eta iraupen horretako jarduerak ohiz kanpoko egoeretan besterik ez diren baimenduko. 5 orduko iraupena izango dute, gehienez ere, familia hauetakoek: Administrazioa eta Kudeaketa (ADK), Merkataritza eta Marketina (MEM), Arte Grafikoak (ARG), Informatika eta Komunikazioak (IFK),

Zerbitzu Soziokulturalak eta Komunitatearentzakoak (ZSK), Irudi Pertsonala (IRP) eta Segurtasuna eta Ingurumena (SEI).

2.– Prestakuntza emango duten zentro edo erakundeek goizez, arratsaldez edo goizean eta arratsaldean banatutako ordutegietan antolatu ahalko dituzte heziketa-jarduerak. Goizez edo arratsaldez antolatzen badira, deialdi honetako heziketa-jarduera bakar bat besterik ezingo da aurreikusi ikasgela horietan goiz edo arratsalde osoan, kasuan kasu. Horrela, prestakuntza-jarduera bakar bat gauzatu ahalko da goizean, eta beste bat arratsaldean. Prestakuntza-jarduera goizean eta arratsaldean banatutako ordutegian egiten bada, ordu eta erdiko atsedenaldia egin beharko da bi saioen artean, gutxienez ere, eta bi ordu eta erdikoa, gehienez ere, salbu eta jardueran parte hartzen duten ikasle guztiek atsedenaldi hori malgutzeko eskatzen ez badute.

5. artikulua.– Diru-laguntzaren onuradunak.

1.– Diru-laguntzak jaso ahalko dituzte, martxoaren 7ko TAS/718/2008 Aginduko 3. artikuluan ezarritako baldintzetan, eta martxoaren 23ko 395/2007 Errege Dekretuko 9.1 eta 9.2 artikuluekin eta bigarren xedapen gehigarriarekin bat etorrita, EAEko enpresa-, sindikatu- eta gizarte ekonomiako elkarterik adierazgarrienek, baldin eta beren kabuz edo beren mendeko zentro edo erakundeen bidez lanbide-heziketa ematen badute, eta horretarako behar bezala kreditatuta badaude EAEko lurralde-esparruan Enplegurako Prestakuntza Zentro eta Erakundeen Estatuko Erregistroan, edo, bestela, erantzukizunpeko adierazpen bidez kreditatzen badute ematen dituzten profesionaltasun-ziurtagiri bakoitzaren errege-dekretu arautzaileak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituztela.

2.– Ezingo dute deialdi honetan araututako diru-laguntzarik jaso zigor- edo administrazio-zehapenik jaso duten enpresa-, sindikatu- eta gizarte-ekonomiako elkarteek zehapen horrek berariaz galarazten badie diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera, edo legezko debekua dela medio ezin badute halakorik jaso, otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legearen ondorioz sexuagatiko bereizkerian erortzeagatik ezarritako debekuak barne.

6. artikulua.– Diru-laguntzen gehienezko zenbatekoa.

Prestakuntza-jarduera bakoitzeko eman daitekeen diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa kalkulatzeko aintzat hartu behar dira jardueraren ordu-kopurua, ikasle-kopurua eta ondoko moduluen zenbatekoa, prestakuntzaren mailaren arabera:

Eskola-modalitatea	Prestakuntza-maila	
	Oinarrizkoa	Goi-mailakoa
Bertaratze bidezkoa	9 euro	13 euro

7. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Deialdiaren I. eranskin gisa argitaratutako inprimakiaren bidez egingo dira deialdi honetan jasotako diru-laguntzak jasotzeko eskaerak.

Interesdunak eskabidearen kopia bat nahi badu, bi kopia aurkeztu beharko ditu.

2.– Arabako lurralde-esparruan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentraletan aurkeztuko dira eskabideak, Jose Atxotegi kaleko 1. zenbakian; Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde-esparruetan, berriz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Enplegu Bulegoetan aurkeztuko dira. Modu berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusten diren moduetan aurkez daitezke eskabideak.

3.– Eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Erakunde edo elkarte eskatzaileak zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzari dagozkionak behar bezala beteta dauzkala egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak.

b) Identifikazio Fiskaleko Txartelaren fotokopia.

c) Eskabidea sinatzen duen/duten pertsona sinatzaileak/sinatzaileek pertsona juridiko eskatzailearen izenean jarduteko duten ordezkaritza-gaitasunaren agirizko egiaztapena.

d) Xede berdinerako eskatutako eta emandako diru-laguntzen aitorpena.

e) Erakunde bakoitzak eskatzen dituen prestakuntza-jardueren laburpen-orriak, zentro bakoitzaren gehienezko prestakuntza-ahalmena egiaztatuta; ahalmen hori urtebetean emateko konpromisoa hartzen duten guztizko ordu-kopuruaren araberakoa izango da, II. eranskinaren arabera. Horretarako aintzat hartuko dira deialdi honetako 4. artikuluan jasotako irizpideak eta 2012ko azaroaren bigarren hamabostaldia hartuko da prestakuntza-jarduerak hasteko aurreikusitako data gisa, nahiz eta egiazki lehenago edo geroago hasi ahalko diren.

f) Zentroa ahalmen-urritasunak dituzten pertsonentzako irisgarritasun unibertsalera moldatuta dagoela adierazten duten egiaztagiriak, hala badagokio. Hainbat espezialitatetan ez da aurkeztuko, hau da, zerrendatutako okupazioen edo lanpostuen araudian espezialitate horiek betetzeko muga psiko-fisikorik ez egotea eskatzen denetan, hala nola Segurtasun Pribatuko Zaintzailearen espezialitateak eta Salgaien eta Bidaiarien Errepideko Garraioarekin lotutakoak.

g) Prestakuntza-zentro edo -erakundeak duen kalitate-egiaztapenaren ziurtagiria, hala badagokio.

h) Hirugarren Interesatuaren Datuen Alta, interesdunak eta dagokion banku-erakundeak behar bezala betea.

i) Deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratzen den unean Enplegurako Prestakuntza Zentro eta Erakundeen Estatuko Erregistroan kreditaturik ez dauden erakundeek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute (III. eranskina), ematen dituzten profesionaltasun-ziurtagiri guztien errege-dekretu arautzaileak eskatutako baldintzak betetzen dituztela adierazteko. Horrekin batera, instalazioen plano zehatza aurkeztu beharko da, elkargoko kide den teknikari batek sinatua.

j) Prestakuntzaren kalitate-kontrolerako eta -ebaluaziorako ekintzak egiteko aurreikuspenik badu, horren berri eman beharko da.

4.– Eskabideak ez baditu baldintza guztiak betetzen, interesdunari jakinaraziko zaio 10 laneguneko epea duela, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunean zenbatzen hasita, izandako hutsune edo akatsa konpontzeko. Hala egin ezean, bere eskabidean atzera egin duela ulertuko da, horrek Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluan aurreikusita dituen ondorioekin.

5.– Eskabideak aurkezteko epea hamabost lanegunekoa izango da, deialdi hau EHAAn argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

8. artikulua.– Prozedura eta ebazpena.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak emateko prozedura lehiaketa-araubidearen arabera izapidetuko da.

2.– Diru Sarreren Bermerako eta Enplegurako Prestakuntzako Zuzendaritza arduratuko da eskabideak kudeatu eta bideratzeaz.

3.– Kide anitzeko organo batek ebaluatuko ditu eskaerak, hurrengo artikuluan aurreikusitako irizpideen arabera. Hona hemen ebaluazio-organoaren osaketa:

– Lehendakaria: Enplegurako Lanbide Heziketako Arloko arduraduna edo hark eskuordetzen duena.

– Mahaikideak: Enplegurako Lanbide Heziketako Arloko arduradunak izendatutako lau teknikari; horietako bat idazkari gisa jardungo da.

4.– Kide anitzeko organoak ebazpen-proposamen bat egingo du eta proposamen horren berri emango dio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari, organo horrek baitu deialdi honen ebazpena egiteko eskumena.

Ebazpena Lanbideko Zerbitzu Zentraletako iragarki-taulan argitaratuko da, Jose Atxotegi kaleko 1. zenbakiko egoitzan, Gasteizen, bai eta www.lanbide.net web-orrian ere; horrez gainera, emandako diru-laguntzen berri emango zaie interesdunei banan-banan, bai eta EHAAn argitaratu ere.

5.– Prozeduraren ebazpena egin eta jakinarazteko gehienezko epea bi hilabetekoa izango da, deialdi hau EHAAn argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro ondoren ebazpenik jakinarazten ez bada, eskabidea baztertutzat jo ahalko da.

Ebazpenak administrazio-bidea agortzen du, eta horren aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean jakinarazpenaren biharamunetik, ebazpen hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren iragarki-taulan argitaratuz jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

9. artikulua.– Balioespena egiteko eta diru-laguntza emateko irizpideak.

1.– Eskabideak balioesteko honako irizpide hauek hartuko dira aintzat:

a) Zentroa irisgarritasun unibertsalera moldatuta egotea: puntu 1.

1.– Ez dute irisgarritasun unibertsalera moldatzen direla justifikatzen duen agiririk aurkeztu beharko Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren (EEZP) kudeaketa-esparruan enplegu-eskaintzarako prestakuntza ematen duten zentro eta erakundeen izen-ematea eta akreditazioa (hala badagokio) arautzen duen EEZPren 2012ko uztailaren 29ko Ebazpenaren arabera EAEko kudeaketa-esparruan langabeei eskaintzako prestakuntza emateko inskribaturik edo kreditaturik dauden erakundeek. Deialdi honetako 7. artikuluko 3.f) idatzi-zatian zerrendatutako espezialitateentzat ere ez da beharrezkoa izango. Atal honetan, zentroek puntu 1 lortuko dute.

2.– Akreditazioa edo izen-ematea aipatutako EEZPren ebazpena baino lehenagoko legediaren arabera egin zuten zentroek, eta deialdira erantzukizunpeko adierazpenaren bidez jotzen duten zentroek ere puntu 1 lortuko dute atal honetan baldin eta elkargoko kide den teknikari baten irisgarritasun unibertsala betetzeari buruzko ziurtagiria aurkezten badute.

3.– Ziurtagiri hori aurkezten ez badute, berriz, 0 puntu lortuko dituzte atal honetan.

b) Kalitate Ziurtatuko Zentroa: 3 puntura arte.

ISO 9000 ziurtagiriagatik, hots, Euskalitek ematen duen Bikaintasunarekiko Konpromiso Diplomagatik: puntu 1.

Eusko Jaurlaritzaren zilarrezko Q aitorpenaren ziurtagiriagatik edo Europar Bikaintasunaren 400+ ziurtagiriaren baliokideagatik: 2 puntu.

Eusko Jaurlaritzaren urrezko Q aitorpenaren ziurtagiriagatik (Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Kalitateari Euskal Saria) edo Europar Bikaintasunaren 500+ ziurtagiriaren baliokideagatik: 3 puntu.

c) 2010 eta 2011ko ekitaldietan egindako horniduren eta ekipamenduen mantentze- eta eguneratze-lanengatik, zentroa irisgarritasun unibertsalera moldatzera zuzendutako esku-hartzeak salbu: 2 puntura arte.

Zentroek egindako hobekuntzen memoria labur bat aurkeztu beharko dute, eragindako prestakuntza-espezialitateak eta -tokiak zehaztuta; horrez gainera, fakturen fotokopiak ere erantsi beharko dituzte. Irizpide honen balioespena lehiaketara aurkeztutako espezialitateetara zuzendutako hornidura eta ekipamenduei emango zaio soilik.

1.– Hornidura berriak eta horniduren erabateko eraberritzea: puntu 1.

2.– Horniduren eraberritze partziala: 0,5 puntu.

3.– Horniduren mantentze-lanak: 0,1 puntu.

4.– Altzari eta tresneriaren erabateko eraberritzea: 0,3 puntu.

5.– Altzari eta tresneriaren eraberritze partziala: 0,1 puntu.

6.– Ekipamendu eta makinen erabateko eraberritzea: 0,7 puntu.

7.– Ekipamendu eta makinen eraberritze partziala: 0,3 puntu.

d) Prestakuntza ematen daukaten eskarmentua: 1,5 puntura arte.

Ikastaroak eman izana balioetsiko da, bai martxoaren 23ko 395/2007 Errege Dekretuaren babesean, bai abenduaren 23ko 327/2003 Dekretuaren babesean antolatuko programaketen barruan, baldin eta lehiaketarako aurkeztutako profesionaltasun-ziurtagiriaren area profesional beraren barruan sartzen badira.

1.– Zentroak azken hiru urteetan prestakuntza-jarduerak eman baditu: 1,5 puntu.

2.– Zentroak azken hiru urteetatik bi urtetan prestakuntza-jarduerak eman baditu: puntu 1.

3.– Zentroak azken hiru urteetatik urte batean prestakuntza-jarduerak eman baditu: 0,5 puntu.

4.– Zentroak azken hiru urteetan prestakuntza-jarduerarik eman ez badu: 0 puntu.

e) Prestakuntza-jardueren kalitatea: 4 puntura arte.

Baremoa: 2011ko deialdiko area profesional bereko espezialitateei (martxoaren 23ko 395/2007 Errege Dekretua) dagozkien ikastaroetako «Sintesi adierazle»etatik ateratako batez bestekoa aplikatuko da.

55,20 puntutik behera: 0 puntu.

55,21 eta 69,00 puntu bitartean: 0,5 puntu.

69,01 eta 75,90 puntu bitartean: puntu 1.

75,91 eta 80,90 puntu bitartean: 1,5 puntu.

80,91 eta 85,80 puntu bitartean: 2 puntu.

85,81 eta 90,70 puntu bitartean: 2,5 puntu.

90,71 eta 95,60 puntu bitartean: 3 puntu.

95,61 eta 103,50 puntu bitartean: 3,5 puntu.

103,50 puntutik gora: 4 puntu.

f) EAEko langabeentzako 2012rako lan-eskaintzako prestakuntza-deialdian programatu gabeko profesionaltasun-ziurtagiriak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Unibertsitate Sailaren mendekoak ez diren zentro pribatu zein publikoek eman beharrekoak (martxoaren 23ko 395/2007 Errege Dekretua): 2,5 puntu.

Lurralde historikoan programatu gabeko ziurtagiriak: 2,5 puntu.

Aipatutako deialdian programatutako ziurtagiria: 0 puntu.

g) 2011ko prestakuntza-jardueretan egindako lanez kanpoko praktikak.

2011ko programazioaren eskarian konpromiso gisa hartutako lanez kanpoko praktiken % 80tik gora egin izana: puntu 1.

2011ko programazioaren eskarian konpromiso gisa hartu gabeko prestakuntza-jardueretan lanez kanpoko 8 praktika egin izana, gutxienez ere: puntu 1.

2.– Goiko balioespen-irizpideak aplikatu ondoren eskabide bakoitzak lortutako puntuak ikusita, aukeraketa egingo da esleipen-irizpide hauen arabera:

a) Azken puntu-kopuruaren guztizko balioak erabakiko du eskabideen hurrenkera, puntu gehien lortu duenetik gutxien lortu duenera, bideratutako aurrekontua bukatu arte.

b) Zentro edo erakunde bati esleitutako prestakuntza-jarduerek haren prestakuntza-ahalmena gainditzen badu, ez zaizkio prestakuntza-ahalmen horretatik gorako ikastaroak esleituko eta hurrengo prestakuntza-jarduera esleituko da, puntuen hurrenkerari jarraituta.

c) Balioespen-irizpideak aplikatzean hainbat eskabidek puntu-kopuru berdina lortzen badute ikastaro bat esleituko zaio erakunde bakoitzari, arau hauei men eginez:

1.– 2011ko deialdiko area profesional bereko espezialitateei (martxoaren 23ko 395/2007 Errege Dekretua) dagozkien ikastaroetako «Sintesi adierazle»etan puntu gehien atera duen zentroa.

2.– EAEko langabeentzako 2012ko lan-eskaintzako prestakuntza-deialdian programatu gabeko profesionaltasun-ziurtagiriak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Unibertsitate Sailaren mendekoak ez diren zentro pribatu zein publikoek eman beharrekoak (martxoaren 23ko 395/2007 Errege Dekretua).

3.– Berdinketa hausten ez bada, eskabideak aurkezteko hurrenkerari men egingo zaio.

10. artikulua.– Prestakuntzaren hartzaileak.

1.– Arau honetan aurreikusitako prestakuntza-ekimenetan parte hartu ahalko dute:

a) Lehentasunez, eta prestakuntza hasten duten pertsona guztien % 60ko parte-hartzearekin, gutxienez ere, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emandako enplegurik gabeko langileek.

b) Lehentasunik gabe, eta prestakuntza hasten duten pertsona guztien % 40ko parte-hartzearekin, gehienez ere, enplegua duten eskatzaileek.

2.– Eskainiko diren prestakuntza-jardueretan parte hartzen dutenek horietara jo ahal izateko eskakizunak bete beharko dituzte eta, prestakuntzaren hasieran, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan langabe gisa izena emanda egon beharko dute edo, enplegua duten langileen kasuan, dagokien eskabidea aurkeztu beharko dute. Nekazaritzako erregimen berezian izena emandako langileak enplegudun langiletzat joko dira.

Prestakuntza-jarduerak www.lanbide.net web-orrian argitaratuko dira, bai eta izena emateko epeak eta eskatzaileek jardueretara jotzeko bete beharreko eskakizunak ere, prestakuntza-jarduera bakoitzaren deskribapenaz eta ezaugarriez gainera.

3.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak aurretiko aukeraketa bat egingo du artikulu honetako lehenengo paragrafoan aipatutako pertsonen artean. Parte-hartzaileen aukeraketak hautaketa-proba bat barne hartuko du hala eskatzen duten prestakuntza-jardueretan, jarduera hori baliatuko dutela ziurtatzeko eta, egiazki, kualifikazioa emango duten ekintzen helburuak lortzeko beharrezko aurretiazko ezagueren zer maila duten jakiteko.

4.– Euskal Enplegu Estrategiarekin (2011-2014) eta Espainiako Enplegu Estrategiarekin (2012-2014) bat eginez, prestakuntza-ekintzan parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten eta dagokion hautaketa-proba gainditzen duten langabeen artean, kolektiboen araberako lehentasuna ezarriko da, honako hurrenkera honetan:

– Lehenik eta behin, eta lehentasun-maila berberaz, lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten hauek: 30 urte arteko gazteak, batez ere prestakuntza-gabeziak dituztenak; emakumeak, langabetuen kolektiboan duten pisuaren proportzioan; luzaroko langabeak; 45 urtetik gorakoak; desgaitasunen bat daukatenak; langabezia agortuta daukaten eta berriz profesionalki gaitzeko PREPARA programan parte hartzeagatik diru-laguntzak jasotzen dituzten pertsonak; Txertaketako Errenta Aktiboa eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten langabeak, eta genero-indarkeriaren biktimak.

– Bigarrenik, gainerako langabeak, oro har.

– Hirugarrenik, etendurako EEE baten eraginpean dauden langabeak, ordutegia dela-eta prestakuntza-ekintzara joateko libre badaude.

Pertsona batek ezin ditu bi ikastaro egin aldi berean baldin eta ikastaroa egiteko eskakizunak betetzen dituzten langabeen edo landunen eskariak badaude.

11. artikulua.– Prestakuntza-jardueretan parte hartzen dutenen betebeharrak eta ikasleak kanporatzeko prozedura.

1.– Parte-hartzaileek jarraitutasunez joan beharko dute eskoletara, eta prestakuntza-jarduerei probetxua atera beharko diete.

2.– Ikasleak kanporatzeko arrazoiak izango dira honako hauek:

a) Hilean lau aldiz edo maizago eskoletara ez joatea, justifikatu gabe.

b) Prestakuntza-jardueraren iraupen osoan % 25eko ez-bertaratzea biltzea, dena delako arrazoiengatik. Parte-hartzailea prestakuntza-jarduera hasi ondoren hasi bada, ez-bertaratzearen ehunekoa eskolak hasi dituenetik ikastaroaren bukaera arte gelditzen diren orduak aintzat hartuta kalkulatuko da.

c) Eskolei probetxurik atera ezean, edo prestakuntza ematen duen zentro edo erakundeak zein Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ikasleak jarrera egokia ez duela hautematen duenetan.

3.– Hona hemen ikasle baten kanporatzea erabakitzeko jarraitu beharreko prozedura:

a) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak edo prestakuntza-zentro edo -erakundeak kanporatzeko arrazoiren bat hautematen badu, eta, bigarren kasuan, erakundeak idatziz Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari horren berri eman ondoren Lanbidek jakinarazpena aintzat hartzen badu, Enplegurako Prestakuntzaren zuzendariak kanporatze-prozedura hasteko erabakia hartu eta erabaki horren berri emango dio dagokion ikasleari. Prozedura hasteko erabaki horretan adierazi beharko dira kanporatze-proposamena ekarri duten gertakariak; ondoren, 5 egun naturaleko epea izango du ikasleak alegazioak aurkezteko. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak 15 eguneko epean ebatzi beharko du prozedura. Inguruabarrek hala eskatzen badute, kanporaketa hasteko erabakian behin-behineko neurriak hartu ahalko dira prestakuntza-jarduera behar bezala garatzea bermatzeko, hala nola erabakia jakinarazteko egunetik prozedura ebazten den arteko egunetan ikaslea aldi baterako ikastarotik kanporatzea.

b) Ebazpenaren aurka, berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik zenbatzen hasita; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

12. artikulua.– Prestakuntza-jarduerak gauzatzea eta lortutako gaitasunak egiaztatzea.

1.– Diru-laguntzaren onuradunak deialdi honetan ezarritakoaren arabera eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako ereduak aintzat hartuta gauzatu beharko ditu prestakuntza-jarduerak, hala nola hasieraren berri emateko moduari, gerora izan daitekeen edozein aldaketari, prestakuntza-jarduerak bukatzeari bai eta parte-hartzaileen bertaratzea kontrolatzeari dagokionez ere. Oro har, eta aurkako jarraibiderik ematen ez bada, 7 egun naturaleko gehienezko epean egin beharko zaizkio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari dagozkion jakinarazpenak.

2.– Prestakuntza-jardueraren hasieratik horren iraupenaren % 25 bete arte ikasle berriak gehitu edo ordezkatu ahalko dira.

Ikasleek prestakuntza bertan behera uzten badute, beste ikasle batzuk sartu ahalko dira haien tokian. Ordezkapena, prestakuntzaren iraupenaren ehuneko 25 bete baino lehen gertatzen denean baimenduko da, profesionaltasun ziurtagiriekin lotutako prestakuntza-jardueren kasuan ezik. Azken kasu honetan, ordezkapena baimenduko da, beti ere aurreko ehunekoa gainditzen ez den

bitartean, eta prestakuntza-jardueraren hasierako lehen bost eskola-egunetan gertatzen bada. Jarduera hasten duten parte-hartzaileen guztizkoa, iraupenaren % 25 betetzen denean zenbatuko da. Une horretan bete beharko da langabeentzako ezarritako gutxieneko % 60ko ehunekoa eta landunentzat ezarritako gehieneko % 40a. Hala eta guztiz ere, jardueraren lehen laurdenean gerta daitezkeen uzteak ez badira ordezkatzen eta prestakuntza-jarduerak jarraitzen duten langabeen ehuneko 60tik beherakoa bada, prestakuntza-jarduerak normaltasunez egin ahalko du aurrera, gertatutakoa ez baita ikastaroa bertan behera uzteko arrazoitzat joko.

Hasitako jardueretara eransten diren ikasleek ikastaroari probetxua ateratzeko gaitasuna bermatzen duen adinako maila eduki behar izango dute, ikastaroaren garapen arruntari eragin gabe. Hori dela eta, prestakuntza-jardueraren aprobetxamendua eta garapen arrunta bermatze aldera, parte-hartzaileen hautaketa-prozesuak irizpideak ezarri beharko ditu ikasleek prestakuntza-jarduera behar bezala jarraitzeko adinako gutxieneko maila dutela bermatzeko.

3.– Prestakuntza-jardueran parte hartuko duten langabeei dagokienez, prestakuntza emateaz arduratzen diren zentro eta erakundeek berehala eman beharko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari parte-hartzaileen ukoen, ez-bertaratzeen eta uzteen berri, gertaera horien arrazoiak zehaztuta.

4.– Urtarrilaren 18ko 34/20008 Errege Dekretuko 14. artikuluaren arabera, ikaslearen ebaluazioa moduluka egingo da, ikaskuntza-emaitzak egiaztatzeko eta, horren bidez, lanerako gaitasunez jabetu dela egiaztatzeko. Modulua bukatutakoan Ebaluazio Akta egingo da, parte-hartzaile bakoitzak lortutako emaitzekin. Ikastaroa bukatzean ebaluazioa gainditu duten parte-hartzaileei dagokien profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko eskaria emango zaie diplomarekin batera edo, gaitasun-unitateka egingo diren eta osoki emango ez diren prestakuntza-jardueren kasuan, gainditutako gaitasun-unitateen akreditazio partziala lortzeko eskaria emango zaie ebaluazioa gainditzen duten ikasleei. Ikasleak ikastaroa emaitza positiboarekin gainditzen ez badu, berriz, bertaratze-ziurtagiria emango zaio.

5.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako diplomen erregistroa egingo du.

6.– Diru-laguntzen onuradunek zuzenean gauzatuko dituzte prestakuntza-jarduerak, eta ezingo dute hirugarrenik azpikontratatu horretarako. Ondorio horietarako, ordea, diru-laguntza jaso duen prestakuntza-jarduera emateko irakasleak kontratatzea ez da azpikontrataziotzat joko.

13. artikulua.– Lanez kanpoko lanbide-praktikak.

1.– Erakundeek prestakuntza praktikoko modulu bat egitea aurreikusi beharko dute, lan-zentroetan eta egindako espezialitatearekin zerikusia duten lanbideetan, ikastaroetan parte hartu duten ikasleen % 100entzat, lan horretan gutxienez hiru hilabeteko eskarmentua dutela egiaztatzen duten ikasleak izan ezik, urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuko 5 bis artikuluaren arabera (artikulu hori abenduaren 10eko 1675/2010 Errege Dekretuaren bidez erantsi zen).

2.– Ahal bada, lanbide-praktikak gainerako prestakuntza-moduluak bukatutakoan egingo dira, aurrekoak emaitza positiboarekin gainditu badira, betiere; horrela, ikastaroa bukatu eta bi hilabeteko epean hasi beharko dira lanbide-praktikak. Salbuespeneko kasuetan, eta behar bezala arrazoitzen bada, lanbide-praktikak prestakuntza-ekintzarekin batera egin ahal izango dira. Praktikak prestakuntza-ekintza egiten ari diren bitartean hasi dituzten eta azken emaitza negatiboa lortzen duten ikasleek praktiketan jarraitzeko aukera izango dute. Prestakuntza-ekintza uzteak, berriz, berari atxikitako lanez kanpoko lanbide-praktika utzi behar izatea ekarriko du.

3.– Profesionaltasun-ziurtagiri osorako ikasten ez denean ere lanez kanpoko praktikak egin ahalko dira, baina ez lan-zentroko prestakuntza-modulua.

4.– Lanez kanpoko praktikak enpresen eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren artean sinatutako eta prestakuntza-zentroek dinamizatuko dituzten hitzarmenen bidez arautuko dira.

14. artikulua.– Prestakuntza-jardueren jarraipena eta kontrola.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egingo du, ikasketak ematen dituen zentroarekin batera, lehentasunez langabeei zuzendutako prestakuntza-jardueren jarraipena eta kontrola. Horretarako, prestakuntza-jarduerak ematen diren zentroa bisitatuko du eta idatziz jaso beharko du ezarritako baldintzak betetzen direla edo, hala badagokio, zer nolako irregulartasun hauteman dituen, ongi zehaztuta, arazoak konpon ditzaten.

Lanbidek bi bisitaldi egingo ditu, gutxienez ere, ikastaro bakoitzera:

– Hasieran: bisitaldi honetan prestakuntza ematen duen zentroaren baldintzak egiaztatuko ditu, ikastaroari eta horren garapenari buruzko datu guztiak emango dizkie ikasleei eta horiek izan ditzaketen zalantza eta galderei erantzungo die.

– Ikastaroaren bukaeran: zentroko baldintzak egiaztatuko ditu, ikasleei amaierako inkesta pasako die eta ikastaroaren balioespen orokorra eskatuko die.

Bisitaldi-kopurua areagotu daiteke, ikastaroen iraupenaren arabera, edo arazo edo gabeziaren bat konpontzeko beharrezkoa balitz.

Prestakuntza ematen duen zentroak Lanbidera bidali beharko du, ikastaroaren lehenengo hilabetea bukatu baino lehenago:

– Ikastaroaren funtzionamenduari buruzko txostena, homologazio-baldintzak eta ikastaroaren hasierako komunikazioan adierazitakoa betetzen dela egiaztatzen duena.

– Ikasleei emandako kalitate-inkestak, haiek egindako ohartarazpenekin batera.

15. artikulua.– Prestakuntza-jardueren ebaluazioa.

395/2007 Errege Dekretuak eta TAS/718/2008 Aginduak prestakuntza-jardueren ebaluazioari buruz eta prestakuntza-eskaintzaren sustapenari eta kalitatea bermatzeari buruz ezarritakoaren arabera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak deialdi honen babesean emandako prestakuntza-ekintza guztien kalitatea aztertuko du, ebaluazio-sistema bitariko bati jarraikiz. Ebaluazio-sistema mistoak bi iturri hauetatik bilduko du informazioa:

A) Ikasleek betetako galdetegietatik lortutako batez besteko emaitzetatik, Enplegurako prestakuntza-jardueren kalitatea ebaluatzeko galdetegiak argitaratzen dituen Estatuko Enplegu Zerbitzuaren 2009ko apirilaren 27ko Ebazpenean (EAO, 2009ko ekainaren 11koa) xedatutakoaren arabera.

B) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikariak prestakuntza-jardueraren bukaeran egindako bisitaldian emandako puntuak, «Prestakuntza-zentro/erakundeak emandako heziketaren ebaluazioa» ereduzko agiriarekin bat etorrita.

Nolanahi ere, emandako prestakuntza-ekintzen kalitatea ebaluatzeko nahitaez egin beharko da prestakuntza-zentro edo -erakundeak emandako prestakuntza-ekintza bakoitzarentzako sintesi-adierazle bat. Sintesi-adierazle horrek aipatutako bi iturrietatik lortutako emaitzak haztatuko ditu, beheko formula honen arabera:

Ebaluazionaren sintesi adierazlea = A x 0,6 + B x 0,4

A= 2009ko apirilaren 27ko Ebazpenaren arabera ikasle guztiek betetako galdetegietatik lortutako batez besteko puntuak.

B= Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikariak emandako guztizko puntuak, IV. eranskinean jasotako ereduaren arabera.

Nolanahi ere, beste informazio iturri batzuk ere aintzat hartu ahalko dira, halakorik balego, prestakuntza-zentro edo -erakundeen kargu utzitako ebaluazio-ekintzetan lortutako emaitzak, besteak beste.

16. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da:

– % 85ekoa izango da lehen ordainketa, eta diruz lagundutako prestakuntza-ekintza hasi eta ondoren gauzatuko da.

– Bigarren ordainketa, % 15ekoa, prestakuntza-ekintza bukatu ondoren gauzatuko da, ekintza behar bezala justifikatu eta likidatutakoan.

Aurretiazko ordainketa hori bermeen erregimenarekin bat etorriz bermatuko da, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren arabera ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak xedatutakoaren arabera.

Ordainketak egin baino lehen aurkeztu beharko dituzte erakunde onuradunek Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta dauzkatela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

17. artikulua.– Diru-laguntzaren justifikazioa eta likidazioa.

1.– Justifikazio-epea.

Onuradunak jarduera bukatu eta ondorengo hiru hilabeteetan barru aurkeztu beharko dizkio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari prestakuntza-jarduera gauzatu izanaren eta jardueraren garapenean egindako gastuen justifikazioak.

Ezarritako epean goiko paragrafoan aipatutako agiririk aurkezten ez badu, eskumeneko organoak 15 eguneko epe luzaezina emango dio onuradunari agiri horiek aurkez ditzan. Epe berri horretan justifikaziorik ez iristeak itzultze-prozedura hastea ekarriko du; prozedura horren bitartez egiteke dagoen diru-laguntzaren bigarren ordainketa galtzeaz gainera, lehenengo ordainketan jasotakoa itzultzeko betebeharra ere erabaki ahalko da.

2.– Diruz lagun daitekeen epea.

Diruz laguntzeko moduko gastu gisa aurkeztu eta onartu ahalko dira prestakuntza-jarduera ematen den garaian egindakoak bai eta prestakuntza-jarduera hasi aurreko hilean zein hura bukatu ondorengo hilean egindakoak ere.

Prestakuntza-jarduera hasi aurretik egindako gastu gisa aurkeztutakoak ezingo dira izan, inola ere, diru-laguntza emateko ebazpena onartu zen egunaren aurrekoak.

3.– Diru-laguntzaren justifikazioan zenbatu daitezkeen ikasleak.

Laguntzen likidazioa, ikastaroa amaitu duten parte-hartzaileen eta egin dituzten eskola-ordu eraginkorren arabera egingo da, ezarritako modulu ekonomikoei jarraikiz. Likidazioak ez du inola ere gainditu hasiera batean onartutako diru-laguntzaren zenbatekoa.

Prestakuntza gauzatu ondoren diru-laguntza zehaztean, bertaratze bidezko ekintzetan ikasle batek prestakuntza amaitu duela ulertuko da, baldin eta prestakuntza-ekintzaren iraupenaren ehuneko 75ean bertaratu bada.

Langabezian dauden langileen kasuan, lana aurkitu dutela eta ekintza uzten badute, prestakuntza-ekintza amaitu dutela ulertuko da, baldin eta prestakuntza-jardueraren ehuneko 25 gutxienez eginda badute.

4.– Auditorearen txostena jasotzen duen justifikazio-kontua.

Onuradunak diruz lagundutako prestakuntza-jarduera egin izana justifikatu beharko du, bai eta jarduera horrek sortutako gastua ere, auditorearen txostena jasotzen duen justifikazio-kontu baten bidez; azken horrek bat etorri beharko du diruz lagun daitezkeen kostuekin eta artikulu honetan ezarritako gastu egozgarrien irizpideekin.

Auditorearen txostenak berretsi beharko du aitortutako gastuak egozgarriak direla, balio frogagarri bereko faktura edo kontabilitate-agiriekin egiazta daitezkeela eta, gainera, gastuok prestakuntza-jarduerarekin lotzen dituen zigiluarekin sailkatu dituela onuradunak, diruz lagungarria den epearen barruan ordaindu izana eta ordainketa gauzatu izanaren lekukotasunik badagoela egiaztatzeaz gainera. Xede horretarako, zigiluak adieraziko du zer prestakuntza-jarduera justifikatzeko aurkeztu diren jatorrizko egiaztagiriak eta egiaztagirien balioa guztiz edo hein batean egozten zaion diru-laguntzari (bigarren kasuan egotzitako zenbateko zehatza adierazi beharko da).

Onuradunak nahi duen auditorea aukeratu eta kontratatuko du, Kontabilitatearen eta Kontu Auditoretzaren Institutuaren mendeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako jarduneko auditoreen artean, eta merkatu askeko eta sektoreko batez besteko ordainsariak errespetatuz.

Justifikazio-kontuarekin batera aurkezten den auditore-txostenak eragindako gastua diruz lagun daitekeen gastutzat joko da eta justifikatu egin beharko da artikulu honetako 13.C.2 apartatuan adierazitakoaren arabera.

5.– Justifikazioan erabili beharreko dokumentuak.

Prestakuntza-ekintza bakoitza justifikatzeko honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

– «Gastuen aitorpena eta prestakuntza-ekintzaren azken likidazioa». Deialdi honen V. eranskina.

– «Gastuen frogagiri-zerrenda». Deialdi honen VI. eranskina.

– «Amortizazio-koadroa». Deialdi honen VII. eranskina.

– Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean daudela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak.

– Diru-laguntza bat baino gehiago aldi berean jasotzen ez dela egiaztatzen duen aitorpena.

– BEZaren urteko aitorpena (390. eredua), baldin eta beharrezkoa bada.

– Prestakuntza-ekintzaren auditoria-txostena.

6.– Aitortu beharreko gastuak.

Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat datozenak eta justifikazio-epea amaitu aurretik ordaindu direnak.

Diruz lagun daitezkeen gastutzat aurkezten diren ondasun edo zerbitzuen eskuratze-kostua ezin izango da merkatu-balioa baino handiagoa izan, inola ere, eta bereziki hartzailearen eta ordaintzailearen artean lotura dagoenean.

Diru-laguntzen onuradunek horiek sortutako gastu guztiak aitortu beharko dituzte. Likidazioa aurkeztu ondoren, ez dira onartuko hasieran sartu ez diren gastuen frogagiriak.

Oro har, onuradunak zenbait hornitzaileren hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideen aplikazioa bermatzeko, betiere ondasun edo zerbitzu horiek kostuak egozteko aldian eskuratu behar badira eta 18.000 eurotik gorako gastua bada.

7.– Gastuen justifikazioa.

Gastuak fakturen bidez eta merkataritza-trafiko juridikoan froga-balio baliokidea edo administrazio-eraginkortasuna duten bestelako dokumentuen bidez egiaztatuko dira. Diru-laguntzen onuradunek prestakuntza-ekintzaren kostuaren justifikazioan egozten diren gastuen eta ordainketen frogagiriak izango dituzte.

Faktura osoa prestakuntza-ekintza bati egozten bazaio, prestakuntza-ekintzari dagokion identifikatzailea jasoko da horretan. Partzialki egozten bada, erantsitako idazki batean zer elementu egozten diren eta horien prezioak zehaztuko dira.

Fakturek egindako eragiketaren deskribapen osoa eta xehatua jaso beharko dute, eta Fakturaziorako betebeharren araudia onartu eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudia aldatzen duen azaroaren 28ko 1496/2003 Errege Dekretuaren (azaroaren 29ko BOEa) baldintzetara egokituko dira.

Fakturaren kontzeptua berez azaltzen ez den kasuetan, dagozkion entrega-albaranen kopia konpultsatua erantsiko da.

Gastu-frogagiri gisa aurkezten diren dokumentuetan ez da aldaketarik ez zirriborrorik egingo. Zerbait argitu nahi bada, idazki bat erantsiko zaie frogagiriei.

Likidazioarekin batera aurkezten diren idazki guztiek diru-laguntzaren onuradunak sinatuta eta zigilatuta egon beharko dute.

8.– Kontabilitatea.

Onuradunak kontabilitate-sistema bereizia edo kontabilitate-kode egokia izango du eragiketarekin lotutako transakzio guztietarako, kontabilitate-arau nazionalak aparte utzi gabe.

Halaber, onuradunak «Gastuen frogagiri-zerrendan» aurkeztutako gastu eta ordainketen frogagiriak gorde beharko ditu, aplikatzekoak diren egiaztapenak eta kontrolak egin ahal izateko justifikazioa aurkeztu eta hurrengo bost urteetan. Aipatutako epea igaro gabe jarduera bertan behera uztea edo desegitea erabakitzen duten erakundeek dagokien dokumentazioaren kopia bidali beharko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren organo eskudunari.

9.– Gastuak egoztea.

Loturiko kostuak diruz lagundutako jarduerari egotziko dizkio onuradunak, oro har onartutako kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera proportzionalki dagokion zenbatekoan eta, nolanahi ere, gastu horiek jarduera egin den aldiari dagozkion neurrian.

Gastuak prestakuntza-ekintza baterako baino gehiagorako komunak badira, prestakuntza-ekintza bakoitzari proportzionalki egotziko zaizkio, erabilitako irizpideak eta gastu horien egozpena egiteko egindako kalkuluak azalduta.

10.– Azpikontratazioa.

Lehentasunez langabeei zuzendutako prestakuntza-ekintzen egikaritzea ezin izango da hirugarrenekin azpikontratatu. Horretarako, onuradunak diruz lagundutako prestakuntza emateko irakasleak kontratatzea ez da azpikontrataziotzat hartuko.

11.– Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ).

BEZa diruz lagun daitekeen gastua izango da baldin eta onuradunak benetan eta behin betiko jasaten badu. BEZ berreskuragarria ez da diruz lagunduko. Baldintza hori egiaztatzeko, azken ekitaldiari dagokion 390 eredua (BEZaren urteko aitorpenaren laburpena) aurkeztuko da, eta, eredu horretan, hala badagokio, Zerga Administrazioak aplikatuko duen kenkari-ehunekoa (hainbanakoa) agertuko da.

BEZari lotuta ez dauden edo guztiz salbuetsita dauden erakundeek Zerga Administrazioak egindako ziurtagiri eguneratuaren bidez egiaztatuko dute egoera hori.

12.– Diruz lagundu ezin diren gastuak.

Diruz lagundu ezin diren gastutzat joko dira diru-laguntzaren xede den jarduerarekin zuzenean lotzen ez direnak eta beste hauek:

a) Onuradunak egiazki eta behin betiko ordaintzen ez dituen ordainsariak; halakotzat joko dira edozein modura jasanarazi, berreskuratu edo orekatu ahal izango direnak.

b) Mailegu edo kredituetatik eratorritako gastuak, bai eta kontu korronteak ireki eta mantentzetik eratorritakoak ere.

c) Interesak, errekarguak eta administrazio-zehapenak zein zehapen penalak.

d) Prozedura judizialen gastuak.

e) Banku-kontuetako interes zordunak.

f) Altzarien, ekipamenduen, ibilgailuen, azpiegituren, ondasun higiezinen eta lurren erosketak.

13.– Diruz lagun daitezkeen gastuak.

A) Prestakuntza-jardueraren kostu zuzenak:

1.– Kanpoko zein barneko hezitzaileen ordainsariak.

1.1.– Atal honetako gastu gisa jotzen dira hezitzaileen ordainsariak, honako hauek barne: irakasleen soldatak, kontratu finkoa zein aldi baterakoa dutelarik ere, edo kanpoko irakasleen zerbitzuak, prestakuntza-zentroaren edo -erakundearen konturako Gizarte Segurantzako gastuak hezitzaileak besteren kontura kontratatu dituenean, eta hezitzaileei egotz dakizkiekeen prestaketa-, irakaskuntza-, tutoretza- eta ebaluazio-kostuak.

Orobat gastutzat joko dira hezitzaileen leku-aldatzeko eta ostatu hartzeko gastuak, bai eta haien mantenu-gastuak ere.

Prestakuntza-hasierako komunikazioan sartutako irakasleei dagozkien gastuak bakarrik sartuko dira atal honetan eta, hala badagokio, hurrengo aldaketetan sartutakoei dagozkienak.

Atal honen arabera barneko zein kanpoko hezitzaileen ordainsari gisa egotz daitezkeen zuzeneko gastuen baturak likidatu beharreko diru-laguntzaren guztizko kostuen % 35 osatuko du, gutxienez ere. Ehuneko horretara iristen ez badira, bi zenbatekoen arteko aldea ezingo da zuzeneko, atxikitako edo bestelako gastu gisa egotzi, prestakuntzaren kalitatea ebaluatzeko eta kontrolatzeko kostuak salbu (artikulu honen 13.C.1 paragrafoan ezarrita daude).

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ez ohiko baimena eman ahal izango du ordutegi berean eta prestakuntza-ekintza berbererako hezitzaile bi edo gehiago aldi berean aritzeko, jarduerak giza talde berezietako ikasle-taldeei zuzentzen bazaizkie. Halakoetan, bi hezitzaile edo gehiagoren gastuak egotzi ahalko dira aldi berean; baldin eta, arrazoi pedagogikoak direla medio, ikasleek prestakuntza-jarduera hobeto balia dezaten beharrezkotzat jotzen bada.

1.2.– Diruz lagundutako prestakuntza emango duten irakasleen arabera, bi egoera hauek bereiz daitezke:

a) Besteren konturako langile gisa kontratatutako hezitzaileak:

Ordainsaria % 100ean egozten bada, hiru agiri beharko dira egotzitako gastua justifikatzeko: nomina-agiria, horri dagokion ordainketa-ziurtagiria eta lanaren xedea (dena delako prestakuntza-jarduera gauzatzea) jasotzen duen lan-kontratua. Prestakuntza-jarduera egiteko soilik kontraturik egin ez bada, nomina osorik egoztea justifikatu beharko da.

Prestakuntza-ekintzari egotz dakiokeen zenbatekoa hezitzaileak eman dituen benetako ordu-kopuruarekiko proportzionala izango da, bai zuzenean eskolak emateko kontzeptuan, edo bai prestaketako, tutoretzako edo parte-hartzaileak ebaluatzeko gastuen kontzeptuan (% 20ko gehieneko mugarekin); nolanahi ere, aipatutako jarduerak egin direla egiaztatu beharko da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrean. Egotzitako orduen kopurua inola ere ez da izango lanaldi osoa baino handiagoa.

Prestakuntza-jarduerak emateagatiko ordainsaria ez bada bereizten nominan, eta nominaren barruan beste ordainketa-kontzeptu batzuk sartzen badira, lan egindako orduetatik prestakuntza-jardunean igarotakoak aintzat hartzeko irizpidearen araberako justifikazio-kalkulua aurkeztu beharko da.

Prestaketa-, tutoretza- eta ebaluazio-jarduerak gastu egozgarritzat joko dira, baldin eta prestakuntza-jarduera hasi aurretik haien berri ematen bada, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak berariaz baimentzen baditu.

Egotzi beharreko ordu bakoitzeko kostu gordina formula honen arabera kalkulatuko da:

$$\frac{\text{Hezitzailearen soldata-masa}}{\text{Urteko ordu-kop., hitzarmenaren arabera}} = \text{Hezitzailearen kostua orduko}$$

Egotzi beharreko kostua: emandako ordu-kopurua x kostua/hezitzaile-ordua.

Soldata-masaren barruan sartzen dira urteko ordainsari gordina (aparteko ordainsariak barne), gehi enpresaren konturako Gizarte Segurantzaren kostua eta pentsio-planetarako ekarpenak.

Enpresaren konturako Gizarte Segurantzaren atalean sartuko dira besteren kontura kontratatuko irakasleen gastuak, erakunde onuradunak ordaindu beharreko Gizarte Segurantzakoak, hain zuzen ere.

Egotzitako kostua justifikatzeko Gizarte Segurantzako kotizazio-agiriak (TC-1 eta TC-2 ereduak) eta haiek ordaindu izanaren egiaztagiriak.

b) Prestakuntza-zentroko edo -erakundeko hezitzaile titularrak:

Kasu honetan diru-laguntzaren onuraduna pertsona fisiko bat edo nortasun juridikorik gabeko eta zerga-ordainketaren araubideko erakunde bat da, irakaskuntza-kostuak prestakuntza-ekintzari egozten dizkiona.

Egotzitako kostua azaroaren 28ko 1496/2003 Errege Dekretuan jasotako eskakizunen arabera osatutako jatorrizko fakturarekin justifikatuko da; faktura horretan langileari egindako atxikipena adierazi beharko da, bai eta ordainketa-frogagiria, Langile Autonomoen Araubide Bereziari ordaindu izanaren frogagiriak eta titularraren erantzukizunpeko adierazpena ere, informazio hau jasoko duena: irakatsitako prestakuntza eta egindako jarduerak, emandako orduen kopurua, ordu bakoitzeko kostua eta jaso beharreko zenbatekoa.

c) Zentroaz kanpoko irakaskuntza-zerbitzua:

Zentroaz kanpoko irakaskuntza-zerbitzutzat jotzen da gaian espezializatutako erakunde batekin kontratua sinatzea, osorik edo hein batean prestakuntza-jarduera irakatsi dezan.

Kontratua beren konturako langile hezitzaileekin egin daiteke.

Zerbitzu hori fakturen bidez eta dagokion ordainketa-frogagiriaren bidez egiaztatuko da.

Nolanahi ere, fakturan informazio hau adierazi beharko da: prestakuntza-jardueraren izendapena, egindako jarduera, emandako eskola-orduak, ordu bakoitzeko kostua eta guztizko zenbatekoa.

Kanpoko irakaskuntza-zerbitzuaren guztizko zenbatekoak ezingo du gainditu diruz lagun daitekeen kontzeptu horren barruan egotzitako prestakuntza-jarduera irakastetik eratortzen diren zuzeneko kostuen (hezitzaileen ordainsariak) % 80.

Irakaskuntza-zerbitzu jakin bat zerbitzuak bere konturako langile gisa (lan-jarduera bat gauzatuz) ematen dituen pertsona batekin kontratatzen bada, egotzi beharreko kostua fakturaren bidez (langileak egindako atxikipena jasotzen duena) eta ordainketa-frogagiriaren bidez egiaztatuko da.

2.– Instalazioak eta ekipamenduak, ikasgelak, tailerrak eta prestakuntzaren garapenean erabilitako gainerako espazioen amortizazio-gastuak.

Atal horretan honako hauek sartzen dira: instalazioak, ekipamendu eta tresnak, bai eta informatika-softwarea amortizatzeko gastuak ere, baldin eta haien bizitza erabilgarria urtebeteko ekitaldi batetik gorakoa bada. Atal honetan sartzen dira, orobat, ikasgelak, tailerrak eta prestakuntzaren garapenean erabilitako gainerako espazioen amortizazio-gastuak.

Amortizazioa oro har onartutako kontabilitate-arauei jarraikiz gauzatuko da; xede horretarako, sozietateen gaineko zergarako ezarritako zergen amortizazio-tauletara moldatutako amortizazio-metodo bat aplikatu ahalko da.

Gastu horiek likidatzeko unean egiaztatuko dira, gastu gisa sartutako elementu bakoitzarentzat, eta deialdi honen VII. eranskin gisa jasotako «Amortizazio-taula» eredua aurkeztuta.

Atal honetan adierazitako gehienezko zenbatekoak ezingo du gainditu prestakuntza-ekintzarako onartutako guztizko kostuaren % 10.

Amortizazio-gastuek bat etorri beharko dute diru-laguntzaren onuradunaren kontabilitatean erregistratutako ondasun amortizagarriekin.

Ezingo dira egotzi diru-laguntzekin edo laguntza publikoekin eskuratzen diren ondasunen amortizazio-gastuak.

Diruz lagundutako amortizazio-gastuak diru-laguntza jaso dezakeen epera mugatuko dira.

3.– Baliabide eta material didaktikoetarako eta ondasun kontsumigarrietarako gastuak.

Atal honetan sartzen dira ikasleen erabilera bakarrerako testuak zein baliabide didaktikoak eta prestakuntza-jardueretan erabilitako lan-material suntsigarriak.

Aurrekoa egiaztatzeko agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Azaroaren 28ko 1496/2003 Errege Dekretuak xedatutako eskakizunak betetzen dituzten fakturak, bai eta dagozkien ordainketa-frogagiriak ere.

b) Irakasle bakoitzari emandako erabilera bakarreko materialak jaso izanaren agiria, materialen xehetasunak eta ikaslearen sinadura jasotzen dituena, baldin eta material horien kostua egozten bada.

Laneko material suntsigarriak badira, haien erabilera prestakuntzaren xedearekin garatutako jardueretara doitu beharko da.

4.– Alokairu-gastuak eta finantza-errentamenduko gastuak.

Gastu hauen barruan sartzen dira instalazioak, prestakuntza-jarduerarako makinak zein ekipamenduak alokatzeagatik edo leasing zein renting bidez hartzeagatik egotzi beharrekoak edo haietan etorkia dutenak.

Sartutako kontzeptu bakoitzari dagozkion fakturak eta alokairu-kontratuak aurkeztu beharko dira, azaroaren 28ko 1496/2003 Errege Dekretuan xedatutako eskakizunen arabera, bai eta dagozkien ordainketa-frogagiriak ere.

Instalazioak edo ekipamenduak alokatzetik sortutako gastuak % 100ean egozten bazaizkio prestakuntza-jarduera bati, edo gastu horiek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak prestakuntza-zentro edo -erakundeari emandako hainbat prestakuntza-ekintzen artean banatzen badira, behar bezala egiaztatu beharko da instalazioak aipatutako prestakuntza-jarduerarako erabiltzen direla soilik.

Zerga-errentamenduen kasuan (leasing edota renting) hileko kuotari eman ahalko zaio diru-laguntza, finantza-kostuak kenduta.

5.– Parte-hartzaileen istripuen aurkako aseguruaren gastuak.

Kontzeptu honen barruan sartzen dira ikasle parte-hartzaileek istripuen aurrean dituzten asegurugastuak, aseguratutako ikasle guztien poliza edo primen zenbatekoak barne, prestakuntza-jardueretara joateagatik gerta litezkeen istripuen arriskuak direla medio, bai eta, hala badagokio,

lanez kanpoko lanbide-praktiken fasean gerta litezkeenak ere, edota eskolak ematen diren tokirako joan-etorrietan; hauek guztiak prestakuntza-jarduerak dirauen aldira mugatuko dira zorrozki.

Aseguru-poliza prestakuntza-jarduera bakoitzerako bereziki sinatu ahalko da, edo prestakuntza-jardueren multzo baterako. Nola edo hala, polizan zehazki jaso beharko dira: hasiera- eta bukaera-data, prestakuntza-ekintzaren identifikazio-zenbakia, aseguratutako ikasleen kopurua eta kontratatutako estaldurak.

Kontratuen estaldurak prestakuntza-jarduera jakin bat gainditzen badu, behar bezala justifikatu beharko da egotzitako kostua nola zehaztu den, parte hartu duten ikasle-kopurua aintzat hartuta.

Prestakuntza-jardueren hasiera- edo bukaera-datetan izan daitezkeen aldaketek nahitaez ekarriko dute aseguru-polizako datak ere berrietara moldatzea.

Gastu hori sinatutako ordaindutako prima behar bezala identifikatuta agertzen duen aseguru-polizarekin egiaztatuko da; eta dagokion ordainketa-frogagiriarekin.

6.– Publizitateko gastuak.

Atal honetan sartzen dira prestakuntza-ekintzen berri eman eta haiek sustatzetik eratorritako publizitate-gastuak, egindako jarduerak eta zerbitzuak komunikazio-sistema ezberdinen bidez hedatzeko.

Gastu horiek fakturen eta dagozkien ordainketa-frogagirien bidez egiaztatuko dira; horrez gainera, egindako publizitatea ere aurkeztu beharko da, paperezko euskarrian edo euskarri digitalean, eta bertan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren finantzaketa agertu beharko da. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren finantzaketa agertzen ez bada gastu hori ezin izango da egotzi.

B) Prestakuntza-jarduerarekin erlazionatutako kostuak.

1.– Laguntza-langileen kostuak.

Kontzeptu honetan sartzen dira prestakuntza-jarduera prestatu, kudeatu eta gauzatzeko beharbeharrezkoak diren zuzendaritzako eta administrazioko langileei dagozkien gastuak. Bereziki, ikasleak aukeratzeko gastuak eta kontabilitate- eta auditoria-txostenak egitetik eratorritakoak sartzen dira, baldin eta txosten horiek ez badira diru-laguntzaren onuradunek nahitaez egin beharrekoak. Horiez gainera, prestakuntza-zentro edo -erakundeek antolatutako lanez kanpoko lanbide-praktiken administrazio-kudeaketatik eratorritako langile-kostuak ere egotzi ahalko dira.

Gastua 13.A.1 apartatuan kanpoko zein barneko hezitzaileen ordainsarientzat zehaztutako irizpide eta jarraibideen arabera egiaztatu beharko da.

Gastuak prestakuntza-jardueraka zatituta aurkeztu beharko dira.

Ikasleak aukeratzetik eratorritako gastuak behar bezala arrazoitu beharko dira.

2.– Finantza-gastuak.

Atal honetan sartzen dira diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean lotutako finantza-gastuak, jarduera hori prestatu edo gauzatzeko nahitaezkoak direnak, betiere.

Halakorik balego, banku-bermea eratzean sortutako komisio, interes eta gainerako gastuak ere sartuko dira, eta berme hori eratzeko agiriekin eta horrekin lotutako gastuen agiriekin egiaztatuko dira.

Ezingo dira diruz lagundu finantza-transakzioak, aldaketa-komisioak eta -galerak eta banku-kontuak ireki eta mantentzetik eratorritako gastuak.

Ez dira finantza-gastutzat joko, halaber, mailegu eta kredituetatik eratorritakoak.

3.– Lotutako beste kostu batzuk.

Atal honetan honako hauek sartzen dira: argia, ura, berogailuak, mezularitza, posta, garbiketa, zaintza eta prestakuntza-ekintza gauzatzearekin erlazionatuta dauden eta lehenago aipatu ez diren beste kostu batzuk.

Aipatutakoez gainera, telefono- eta komunikazio-gastuak ere sartuko dira (faxa eta Interneta), bai eta prestakuntzarako instalazio eta ekipamenduen mantentze-lanetatik eratorritakoak ere.

Kostu egozgarri gisa sartuko dira, orobat, irakaskuntza-materialak argitaratu zein inprimatzekoak eta material horiek itzultzekoak.

Gastu horiek dagokien fakturaren eta ordainketa-frogagiriaren bidez egiaztatuko dira.

Erakunde onuradunak gastuak egozteko irizpideak eta egindako kalkuluak aurkeztu beharko ditu gastu horiek egiaztatzeko dokumentazioarekin batera.

4.– Lotutako kostuen muga.

Lotutako kostuen baturak ezingo du gainditu prestakuntza-jarduerarako onartutako kostuen ehuneko 20.

C) Diruz lagundu daitezkeen beste kostu batzuk:

1.– Prestakuntzaren kalitatearen ebaluazioak eta kontrolak eragindako kostuak.

Zehazki, prestakuntzaren kalitatea ebaluatzeko eta kontrolatzeko jarduerak eragindako barneko zein kanpoko langile-kostuak sartzen dira atal honetan.

Onartutako diru-laguntzaren % 5 bideratu ahalko dute onuradunek, gehienez ere, eskaintzen duten prestakuntzaren kalitatea ebaluatu eta kontrolatzeko jardueretara.

Prestakuntzaren ebaluazio- eta kontrol-jarduera gisa hartu ahalko dira irakasleei zein ikasleei zuzendutako inkestak, hobekuntza-eremuen identifikazioa eta hobekuntza-planak egitea.

Kontzeptu hau prestakuntza-ekintzaren eskabidea aurkeztean berariaz aipatu beharko da, gastu horien justifikazioa onartu ahal izateko.

Irakaskuntzaren kalitate-kontroleko eginkizunak irakasle ez diren langileek egin ahalko dituzte.

Kalitatearen ebaluazio eta kontroleko gastua 13.A.1 atalean kanpoko zein barneko hezitzaileen ordainsarientzat zehaztutako irizpide eta jarraibideen arabera egiaztatu beharko da.

Arlo honetan egindako edozein jarduera Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikariei aurkeztu beharko zaie.

2.– Auditorearen txostenetik eratorritako gastuak.

Auditore-txostena egitetik eratorritako barneko eta kanpoko gastuak sartzen dira.

Auditore-txostenaren kostuak prestakuntza-jarduera egiteko onartutako diru-laguntzaren % 3 hartuko dute, gehienez ere.

Auditoriaren kostua dagokion fakturaren eta ordainketa-frogagiriaren bidez egiaztatuko da. Gastu horiek prestakuntza-ekintzen arabera behar bezala xehatuta aurkeztu beharko dira eta egoztea parte-hartzaileen kopurua kontuan hartuta egingo da.

14.– Aitortutako gastuen ordainketa-justifikazioa.

Prestakuntza-jardueren onuradunak aitortutako gastuak ordaindu izana egiaztatu beharko du; egiaztapen hori ordainketa-moduaren araberakoa izango da.

Inola ere ez dira onartuko eskudirutan egindako ordainketak langileentzat, ez zuzeneko kostuetan (irakaskuntza eta prestakuntza), ez eta lotutako kostuetan ere (administrazioa, garbiketa eta bestelako zerbitzuak), mantenu- eta garraio-gastuetarako izan ezik.

Eskudirutan egindako ordainketak egiaztatzeko hornitzaileak sinatu eta zigilatutako ordainagiria erabiliko da; ordainagiri horretan behar bezain argi agertuko dira zenbatekoa jasotzen duen enpresa eta ordaintzen diren gastu-dokumentuen zenbakia zein jaulkitze-data. Ordainketa gastua jasotzen duen dokumentu berean jasotako hartze-agiriaren bidez egiaztatzen bada, agiri horretan hornitzailearen sinadura eta zigilua eta ordaindu izanaren zigilua agertu beharko dira.

Txeke izendunaren bidezko ordainketa, berriz, kargua egiaztatzen duen banku-ziurtagiriarekin justifikatuko da.

Zor-agiri, kanbio-letra edo antzekoen bidezko ordainketak dagokion agiriaren kopiarekin eta kargua egiaztatzen duen banku-ziurtagiriarekin kreditatuko dira.

Banku-transferentzia edo bankuko diru-sarrera bidezko ordainketak transferentzia-aginduaren bidez egiaztatuko dira. Agiri horretan argi adierazi beharko dira agindu-emailearen eta onuradunaren izenak; gainera, banku-erakundearen konpentsazio-zigilua agertu beharko da. Aurreko hori ezean, kargua egiaztatzen duen banku-ziurtagiriak balioko du egiaztagiri gisa.

Helbideratze bidezko ordainketa egiaztatzeko, ordaintzen den gastuaren dokumentuek kontuan eragindako zorpetze-egiaztagiria erabiliko da.

Nomina eta fakturen ordainketa-frogagiriak zenbateko osoarentzat egiaztatu behar dira, zenbateko hori prestakuntza-jarduerari osotasunean edo hein batean egozten zaion axola gabe.

15.– Ez-betetzeak eta egiaztapen osatu gabeak.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ikusten badu onuradunak aurkeztutako egiaztapenean konpon daitezkeen akatsak daudela, horren berri emango dio onuradunari, eta hamar eguneko epea emango dio akatsok zuzentzeko.

Emandako epea igarotakoan eskatutako konponketak egin ez baditu, 22. artikuluan aurreikusitako itzultze-prozedura (osoa edo partziala) abiarazi ahalko da.

18. artikulua.– Diru-laguntzaren baldintza orokorrak.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak eman eta ordaintzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) zentro eta erakunde eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dauzkatela egiaztatzea, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak horretarako xedatzen duenari jarraikiz.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik bideratzeko dagoen edozein itzultze- edo zigor-prozedura amaitzea.

b) ez izatea diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dien zehapen penalik edo administrazio zehapenik, edo ez egotea horretarako desgaitzen dituen debeku baten pean, sexuagatiko bereizkeriagatik sortutakoak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraikiz.

19. artikulua.– Jarraipena eta kontrola: erakunde onuradunen betebeharrak.

Erakunde onuradunaren betebehar izango dira azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Orokorreko Printzipio Ordenatzaileen Legearen Testu Bateginaren 50. artikuluan jasotakoak, eta, bereziki, honako hauek:

1.– Diru-laguntzen onuradunek frogaketa- eta kontrol-jarduerak igaro beharko dituzte, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarenak, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoarenak, Enplegu eta Gizarte Gaien Sailarenak, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiarenak ere; hala, lokal eta instalazioetarako sarbidea errazteaz gainera, prestakuntza-ekintzetako parte-hartzaileekin eta elkarrizketatzea egoki irizten dioten beste edozein pertsonarekin harremanetan jartzen utzi beharko die.

Kontrol-jarduera hauek onartzeko betebehar orokor honen esparruan, onuradunak honako hau bete beharko du:

– Finantzatutako ekimenaren gauzatzeari edo bideragarritasunari buruzko edozein informazio ematea eta eskatzen zaion jarraipen-dokumentazioa bete eta bidaltzea.

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea beste erakunde batzuetatik eratorritako diru-laguntzak edo laguntzak (deialdi honek diruz lagundutako ekintza guztiei edo batzuei eragiten dietenak) eskatu direla edo eskuratu direla.

– Diruz lagundutako jardueraren xedeari edo izaerari nabarmen eragin dakiokeen edozein gertaera jakinaraztea, bai eta diru-laguntza emateko aintzat hartu izan den inguruabarren baten aldaketa ere.

2.– Prestakuntzaren garapenean jardunaren jarraipena egiteaz gainera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak auditoria- eta ikuskapen-plan bat ezarri ahal izango du, alde batetik, deialdian xedatutako eskakizunak betetzen direla ziurtatzeko eta, beste alde batetik, diruz lagundutako jardueren egiazko baldintzak zein diren berresteko.

20. artikulua.– Diru-laguntza aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan gertatu den aldaketa orok emandako diru-laguntza aldatzea ekarri ahal izango du, deialdi honetan diru-laguntzen onuradun izateko ezarritako gutxieneko eskakizunak betetzen badira, betiere. Baldintzen aldaketa horren ondorioz diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko prozedurari hasiera emango zaio.

21. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin bat etortzea.

Deialdi honen xede diren laguntzak bateragarriak izango dira beste edozein diru-laguntza edo laguntzarekin; nolanahi ere, finantziazio-iturri desberdinetatik jasotako laguntzen zenbateko osoak ezin izango du gainditu diruz lagundutako prestakuntza-jardueren kostu eraginkorra. Kostu hori gainditz gero, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztuko da.

22. artikulua.– Diru-laguntzak itzultzea.

1.– Jasotako laguntzak hein batean edo osorik itzuli beharko dira honako egoera hauetan:

– Jarduera gauzatu dela egiaztatzeko betebeharrak ez betetzea, edota laguntza emateko zein laguntzaz gozatzeko zehaztutako baldintzak ez betetzea.

– Behar diren baldintzak bete izan gabe diru-laguntza eskuratzea.

– Jarraipen- eta kontrol-jarduerei uko egitea edo haiek oztopatzea.

– Errealitatearekin bat ez datozen datuak eskaintzea diruz lagundutako ekintzak burutzeko baldintzei buruz.

– Deialdi honetan zehaztutako beste edozein betebehar, baldintza edo eskakizun ez betetzea.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak abiaraziko du itzultzeko prozedura, eta idazkia bidaliko dio laguntzaren onuradunari, ez-betetzea eragin duen edo duten gertaeraren edo gertaeren berri emateko. Hori ez ezik, alegazioak edo egokitzat joko dituen egiaztagiriak aurkezteko hamabost eguneko epea duela ere jakinaraziko dio.

3.– Alegazioak aurkezteko epea igarotakoan halakorik aurkeztu ez badu edo ez badira onartu, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpena egingo du. Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez ere 12 hilabeteko epean ebatzi beharko da.

4.– Ebazpenak arauren bat bete gabe utzi dela iritziz gero, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emango da eta, hala badagokio, bi hilabeteko epean, gehienez ere, dagozkion diru-kopuruak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharra adieraziko dio onuradunari, ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Epe hori borondatezko alditzat joko da.

Borondatezko aldian ez badira zenbateko horiek itzultzen, haiek premiamendu bidez berreskuratzeko izapideak hasiko dira.

23. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendu automatizatua.

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legean xedatutakoari jarraikiz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak haren jabetzako fitxategi automatizatuetan txertatuko ditu honako deialdi honetan araututako laguntzak eskatzeko orrien bidez eskuratutako datu pertsonalak.

Halaber, pertsona interesdunek datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haiei aurka egiteko eskubideak izango dituzte, legeak onartzen duen eran; horretarako, hori adierazten duen idazki bat igorri beharko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari (Jose Atxotegi kalea 1 – 01009 Vitoria-Gasteiz).

I. ERANSKINA

BEREZIKI LANGABETUENTZAT DEN ESKAINTZA ERATZEA (395/2007 E.D.) LANBIDE PRESTAKUNTZAKO IKASTAROETAKO DIRU LAGUNTZAK ESKAERA ORRIA

(Aurrealdea)

URTEA 2012

PROBINTZIA

UDALERRIA

IKASTARO ZK.

I.- ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA

Ikastegiaren izena				Errolda zk.	
Titular juridikoa (edo izena)				IFK/IFZ	
K/Plza/etorb.	Ikastegiaren helbidea		Zk. Esk. Solair. Atea	Telefonoa	Faxa
Udalerria: izena	Probintzia: izena	Euskal Autonomia Erkidegoa	Kodea 16	Helbide elektronikoa	

II.- ERAKUNDEAREN LEGEZKO ORDEZKARIAREN EDO AHALDUNAREN DATUAK[1]

Abizenak, Izena	Kargua	IFZ

III.- ESKATUTAKO PROGRAMAZIOA

Espezialitate kodea	Espezialitatearen izena	Espezialitatearen ordua

Eskatutako prestakuntza moduluak[2]	Ibilbidea	
	Osoa ☐	Partziala ☐

Zk.	Prestakuntza moduluaren izena	Zk.	Prestakuntza moduluaren izena

Aurreikusitako hasiera data	Aurreikusitako amaiera data	Eskola orduak	Ikasgela edo lantegia	Ordutegia	
				Goizez ☐	Arrats. ☐

IV.- ESKAERA-EREMUA

Lurraldea:	Araba ☐	Bizkaia ☐	Gipuzkoa ☐
Eskualdea:			

1 Ordezkaritza pertsona bat baino gehiagoren eskuetan badago, ordezkari guztien datuak jasoko dira, eta guztiek sinatu beharko dute eskabidea. Ordezkaritza azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoaren arabera egiaztatuko da.

2 Prestakuntza-moduluen arabera egituratutako espezialitateen kasuan, eta ibilbide partziala eskatzen denean soilik bete behar da.

(Atzealdea)

IV.- ADIERAZPENA

☐ Eskabide-orriarekin batera aurkeztutako agiriak eta datuak egiazkoak dira.

☐ Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra edo bere Organismo Autonomoek emandako natura bereko subentzioa edo diru-laguntzaren ondorioz hasitako itzultzeko prozedura edo prozedura zigortzaile batean ez dela aurkitzen.

☐ Ez dela zigortuta izanda administratibo edo penalki sexu-arrazoiagatik diskriminazioan erortzeko, ezta euskal administrazio publikoen laguntzen eta diru-laguntzen deialdietan parte hartzeko debekuarekin zigortuta, otsailaren 18ko, 4/2005 gizonetako eta emakumeetako Berdintasunerako Legea betez.

☐ Eskatzaileak jakinarazi egingo du helburu bererako beste diru-laguntzarik eskatu duen edo eskatuko duen, diru-laguntza horiek bateragarriak ala bateraezinak diren zehatz dadin.

V.- IKASTEGIAREN TITULARRAREN EDO ORDEZKARIAREN SINADURA

Aipatutako ikastegiaren izenean, eskatzaileak bereziki langile langabeentzat diren lanbide-prestakuntzako ekintzen 2012ko programazioan parte hartu eta dagokion diru-laguntza emateko eskatu du.

.....(e)n, ...(e)ko, ...aren ..... (e)(a)n

Izenpetua.: .....
(Izen-abizenak) zigilua

INTERESDUNARENTZAKO OHARRA

Eskaera-orrian idatzitako datuen helburua, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak eskatutako diru-laguntza emateko eskubidea ote duen zehaztea da, ez besterik. 15/1999 Lege Organikoko 5. artikuluan xedatutako moduan tratatuko dira, eta eskatzaileak eskubidea du datuak tratatzeko prestatu den fitxategiaren arduradunari eskatzeko, zuzen ditzan eskatzeko, datuak ezeztatzeko eta inork ikus ez ditzan eskatzeko.

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ZUZENDARI NAGUSIA

II. ERANSKINA

LANERAKO LANBIDE HEZIKETA (395/2007 ED) BEREZIKI LANGABETUENTZAT DEN PRESTAKUNTZA ESKAINTZA

ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA ESPEZIALITATEEN, GAUZATZE EGUTEGIAREN ETA IKASTEGIAREN PRESTAKUNTZA AHALMENAREN ZERRENDA

Ikastegia ..... Errolda zk. .....

Arduraduna ..... Telefono zk. .....

Posta elektronikoaren helbidea .....

[1]Espezialitate kodea	Hasiera data	Amaiera data	Ordutegia		[2]Ikasgela	[3]Praktiketako ikasle kopurua	Ikastaro zenbakia
			Goizez	Arratsaldez			

Ikastegiko arduradunak ziurtatu du ikastegiak Euskal Enplegu Zerbitzua LANBIDE hitzar dezakeen gehieneko prestakuntza-ahalmena urteko ..... ordukoa dela guztira.

..... (e)n, 20 .....(e)ko ..... aren ..... (e)(a)n

Ikastegiko arduraduna

Izenpetua: .....

1 Alfabetikoki zerrendatu behar dira.
2 Ikastaroa emateko homologatutako ikasgela edo lantegia zehaztu behar da.
3 Administrazioak bete behar du zati ilundua.

III. ERANSKINA

LANBIDE- EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK HARTUTAKO AKORDIOAN ESKATUTAKO BALDINTZEI BURUZKO DEKLARAZIO ARDURATSUA

..... Jauna/Andrea

..... Entitatearen ordezkari legala

ADIERAZTEN DU bere erantzukizunpean, ordezkatzen duen Prestakuntza Entitatek, ondoren zehazten diren deialdi honetako espezialitateen prestakuntza akzioak eman ahal izateko, aipatutako Aginduak eskatzen dituen baldintzak (5. artikuluan) betetzen dituela.

Kodea	Espezialitatea

Sin.: .....

(Zigilua)

IV. ERANSKINA

ENPLEGURAKO LANBIDE PRESTAKUNTZA (395/2007 Errege Dekretua)
BATEZ ERE LANGABEENTZAT BIDERATUTAKO ESKAINTZA PRESTAKUNTZA
(TAS/718/2008 Agindua)

PRESTAKUNTZA ZENTROAK/ERAKUNDEAK EMANDAKO PRESTAKUNTZAREN EBALUAZIOA

Prestakuntza-zentroaren/-erakundearen datuak

Estatuko Erregistro-zenbakia: ..... IFK/IFZ:.....
Izena: .....
Bide Publikoa: ..... Posta kodea: .....
Herria: ..... Probintzia: ..... AE: .....
Arduradun juridikoa: ..... Tel.: .....
Inskribatutako edo egiaztatutako prestakuntza-espezialitatearen kodea: .....
Izena.....

Prestakuntza-ekintzaren datuak:

Prestakuntza-ekintzaren zenbakia: ..... Profesionaltasun-ziurtagiria BAI ☐ EZ ☐
Prestakuntza-ibilbide osoa BAI ☐ EZ ☐

EMANDAKO PRESTAKUNTZAREN EBALUAZIOA

Ondorengo gaietako bakoitza laukia markatuz sailkatuko da honako balioespen-eskala hau kontuan hartuta:

Oso ona edo oso handia 4
Ona edo handia 3
Normala, zuzena edo egokia 2
Txarra, txikia edo urria edo desegokia edo eskasa 1

		1	2	3	4
1.-	GUNEEN ETA INSTALAZIOEN MANTENTZEA:				
1.1.-	Baldintza higienikoak, akustikoak, bizigarritasun-baldintzak, segurtasun-baldintzak.	☐	☐	☐	☐
1.2.-	Lan-arriskuen alorrean indarreko legeriak eskatzen duen prebentzioa.	☐	☐	☐	☐
1.3.-	Irisgarritasun orokorra ahalbidetzeko baliabideak.	☐	☐	☐	☐
1.4.-	Zuzendaritza- eta koordinazio-alorreko instalazioak.	☐	☐	☐	☐
1.5.-	Ikasgela teorikoak	☐	☐	☐	☐
1.6.-	Ikasgela tailerrak/Tailerrak/Praktika-eremuak.	☐	☐	☐	☐

1. MULTZOKO PUNTUAK =

		1	2	3	4
2.-	EKIPAMENDUA:				
2.1.-	Tresnak, makineria eta erremintak.	☐	☐	☐	☐
2.2.-	Altzariak.	☐	☐	☐	☐
2.3.-	Baliabide teknikoak (proiektagailua, telebista, DVDa, arbela, ordenagailua…)	☐	☐	☐	☐

2. MULTZOKO PUNTUAK =

		1	2	3	4
3.-	BALIABIDE DIDAKTIKOAK:				
3.1.-	Baliabide eta material didaktikoak (gidak, liburuak, CD-roma, eskuliburuak, softwarea).	☐	☐	☐	☐
3.2.-	Kontsumo-materiala (papera, bolaluma, praktiketarako materiala orokorrean…).	☐	☐	☐	☐
3.3.-	Norberaren babeserako baliabide egokiak (eskularruak, maskarak, betaurrekoak..).	☐	☐	☐	☐

3. MULTZOKO PUNTUAK =

		1	2	3	4
4.-	PRESTAKUNTZA EKINTZA GAUZATZEA:				
4.1.-	Publizitate estatikoa eta dinamikoa, inskribatutako edo egiaztatutako prestakuntza-zentroaren/-erakundearen izaera eta EGFaren baterako finantzaketa azalduko duena.	☐	☐	☐	☐
4.2.-	Ikasleak prestakuntza-ekintzen ezaugarriak eta langileen prestakuntza-premiak aintzat hartuta aukeratu dira.	☐	☐	☐	☐
4.3.-	Bi sexuen arteko aukera-berdintasunaren printzipioa betetzea.	☐	☐	☐	☐
4.4.-	Ikasleen asistentziaren kontrola.	☐	☐	☐	☐
4.5.-	Administrazio eskudunarekiko komunikazio-betebeharrak betetzea.	☐	☐	☐	☐

4. MULTZOKO PUNTUAK =

		1	2	3	4
5.-	PRESTAKUNTZA EKINTZAREN EDUKIA:				
5.1.-	Prestakuntza-programa edo profesionaltasun-ziurtagiria betetzea.	☐	☐	☐	☐
5.2.-	Ikaskuntzaren kontrola ebaluatzeko eta autoebaluatzeko proben egokitasuna eta kalitatea.	☐	☐	☐	☐
5.3.-	Eduki teorikoen eta praktikoen nahasketa egokia.	☐	☐	☐	☐
5.4.-	Prestakuntza-ekintzan txertatutako Prestakuntza Osagarria(k).	☐	☐	☐	☐
5.5.-	Lanekoak ez diren lanbide-praktikak.	☐	☐	☐	☐

5. MULTZOKO PUNTUAK =

		1	2	3	4
6.-	IRAUPENA ETA ORDUTEGIA:				
6.1.-	Ordutegia ezarritakoaren arabera bete da.	☐	☐	☐	☐
6.2.-	Lan-arloko, familia-arloko eta norberaren bizitza uztartzeko erraztasunak.	☐	☐	☐	☐
6.3.-	Ezarritako irakastorduak betetzea.	☐	☐	☐	☐

6. MULTZOKO PUNTUAK =

		1	2	3	4
7.-	PRESTATZAILEAK/TUTOREAK:				
7.1.-	Egiaztapena.	☐	☐	☐	☐
7.2.-	Irakaskuntza ahalbidetzen duten metodologiak aplikatzea.	☐	☐	☐	☐
7.3.-	Emandako gaiak sakonki ezagutzea	☐	☐	☐	☐
7.4.-	Emandako gaiekin lotutako esperientzia eta harreman profesionalak.	☐	☐	☐	☐

7. MULTZOKO PUNTUAK =

8.-	LANGILEEN ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEA:	1	2	3	4
8.1.-	Lanbide-alorrean emandako informazio- eta orientazio-zerbitzuak	☐	☐	☐	☐
8.2.-	Laneko bitartekaritzako jardunak (lan-poltsak, enpresen kokapena, eta abar).	☐	☐	☐	☐
8.3.-	Parte-hartzaileen mugikortasuna sustatzea.	☐	☐	☐	☐
8.4.-	Prestakuntza-ekintza bukatzean langabeek laneratzeko duten aukera.	☐	☐	☐	☐
8.5.-	Profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko aukera ahalbidetzea (adib.: prestakuntza-ibilbidea osatzen duten prestakuntza-moduluak elkarren segidan ematea).	☐	☐	☐	☐

8. MULTZOKO PUNTUAK =

9.-	KALITATEA KUDEATZEKO SISTEMAK:	1	2	3	4
9.1.-	Prestakuntzaren kalitatea kontrolatzeko eta etengabe hobetzeko sistemak ezartzea zentroan/erakundean.	☐	☐	☐	☐

9. MULTZOKO PUNTUAK =

10.-	EBALUATU BEHARREKO BESTE ELEMENTU BATZUK:	1	2	3	4
10.1.-	Zentroaren egokitasuna minusbaliatuak sartzeko.	☐	☐	☐	☐

10. MULTZOKO PUNTUAK =

LANBIDEKO TEKNIKARIAK EMANDAKO GUZTIZKO PUNTUAZIOA	

EBALUAZIOAREN LABURPEN ADIERAZLEA:

A x 0,6 + B x 0,4= ☐ **x 0,6 +** ☐ **x 0,4 =** ☐

A = Ikasleen galdesortetatik lortutako batez besteko puntuazioa
B = Lanbideko teknikariak emandako guztizko puntuazioa

.....(e)n, 20..... (eko) .....aren .....(a).

Prestakuntza-zentroaren/-erakundearen arduraduna
(Abizenak eta izena)

Stua.: .....

Lanbideko teknikaria
(Abizenak eta izena)

Stua.: .....

V. ERANSKINA

ENPLEGURAKO LANBIDE PRESTAKUNTZA 395/2007 ED - LANBIDE PRESTAKUNTZAKO PRESTAKUNTZA EKINTZETARAKO DIRU-LAGUNTZAK - PRESTAKUNTZA EKINTZAREN GASTUEN AITORPENA ETA AZKEN LIKIDAZIOA

Prestakuntza Zentroak eta Erakundeak (aurrealdea)

1.- Prestakuntza zentroaren edo erakundearen identifikazioa

01 PRESTAKUNTZA ZENTROAREN EDO ERAKUNDEAREN IZENA
02 ERROLDA ZENBAKIA
03 IFK/IFZ
04 TITULAR JURIDIKOA (EDO IZENA)
05 KALEA/PLAZA/ETORB.
06 HELBIDE SOZIALA
07 ZENBAKIA ESK.. SOL. ATEA
08 TELEFONOA
09 UDALERRIA: Izena KOD.
10 PROBINTZIA: Izena KOD.
11 AUTONOMIA ERK. KOD.

2.- Prestakuntza ekintzaren identifikazioa

12 PROGRAMATUTAKO ORDUAK
13 PROGRAMATUTAKO IKASLEAK
14 IKASLE ETA ORDU BAKOITZEKO GASTUA
15 ONARTUTAKO DIRU-LAGUNTZA
16 PRESTAKUNTZA EKINTZA
17 HASIERA DATA
18 AMAIERA DATA
19 ESPEZIALITATEAREN KOD.
20 ESPEZIALITATEAREN IZENA

3.- Prestakuntza ekintzaren kostuen banantzea

1.- PRESTAKUNTZA EKINTZAREN ZUZENEKO KOSTUAK

- ❑ Barneko eta kanpoko hezitzaileen ordainsariak 21
- ❑ Gelen, ekipoen eta instalazioen amortizazioa 22
- ❑ Ikasleen istripu-asegurua 23
- ❑ Baliabide eta material didaktikoak 24
- ❑ Publizitatea 25
- ❑ Gastu orokorrak (alokairua, eta abar) 26

ZUZENEKO KOSTUAK, GUZTIRA

ZUZENEKO KOSTUEN ORDAINTZEKO MODUKO GUZTIZKO GASTUAK 27

2.- PRESTAKUNTZA EKINTZARI LOTUTAKO KOSTUAK

- ❑ Laguntzeko langileak (barnekoak nahiz kanpokoak) 28
- ❑ Finantza-gastuak 29
- ❑ Bestelakoak (argia, ura, telefonoa, ...) 30

LOTURIKO KOSTUAK, GUZTIRA

LOTURIKO KOSTUEN ORDAINTZEKO MODUKO GUZTIZKO GASTUAK 31

3.- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN BESTELAKO KOSTUAK

- ❑ Kalitatearen kontrola eta ebaluazioa 32
- ❑ Auditoretza-gastuak (aginduzko txostenarekin) 33

BESTELAKO KOSTUAK, GUZTIRA

BESTELAKO KOSTUEN ORDAINTZEKO MODUKO GUZTIZKO GASTUAK 34

PRESTAKUNTZA EKINTZAREN GUZTIZKO GASTUAK (27+31+34) 35

4.- Emaitzak

36 EMANDAKO ORDUAK
37 ZENBATU DAITEZKEEN IKASLEAK
38 JUSTIFIKATZEKO AZKEN ORDAINKETAREN DATA

JASO BEHARREKO DIRU-LAGUNTZA (14 X 36 X 37) 39

5.- Autolikidazioa

JASOTAKO AURRERAKINA

- ❑ Aurrerakina ..... %-a guztizko diru-laguntzaren kontura 40

JASO BEHARREKO GAINERAKOA 40 - (35 edo 39) 41

ITZULI BEHARREKO GAINERAKOA (35 edo 39) - 40 42

6.- Autolikidazioaren banku datuak

BEZEROAREN BANKUKO KONTU KORRONTEAREN ZENBAKIA

❑ ZENTRO LAGUNTZAILEARI EGIN BEHARREKO DIRU-SARRERAREN ZENBATEKOA (41) .....

LANBIDE EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN KONTU KORRONTEAREN ZENBAKIA

❑ LANBIDE EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUARI ITZULI BEHARREKO ZENBATEKOA (42) .....

7.- Ordezkariaren aitorpena eta sinadura

Sinatzen duenak, prestakuntza-zentro edo -erakunde deklaratzailearen legezko ordezkari gisa, gastuen aitorpen hau egiten du, eta, hala badagokio, eskatzen du likidazioa ordain diezaiotela; horrez gain, adierazten du dokumentu honetan azaltzen diren datu guztiak "Gastuen frogagiri-zerrenda" deituriko eranskinaren arabera egiaz egindako eta ordaindutako benetako gastuekin ez ezik, bere eskuetan dauden kontabilitate-erregistroko liburuetan dagoen informazioarekin ere bat datozela, eta hori guztia diru-laguntzen alorrean indarrean dagoen estatuko eta Erkidegoaren legeriaren mende geratzen denez, erakunde eskudunek hemen aitortutako informazioari buruzko informazio osagarria eska diezaiokete enplegurako lanbide-prestakuntzaren azpisistema arautzen duen martxoaren 23ko 395/2007 Errege Dekretua partzialki garatzen duen martxoaren 7ko TAS/718/2008 Aginduaren 15. artikulua betez.

....., ... (e)ko ..... aren ..... (a)

Sinatua (Izen-abizenak)

PRESTAKUNTZA ZENTROAREN EDO ERAKUNDEAREN ZIGILUA

Prestakuntza Zentroak eta Erakundeak (aurrealdea)

ESP. EKONOMIKOAREN ZK.	..... / ....
DEIALDI ZENBAKIA	.... / ....

Prestakuntza zuzendaritzaren ziurtapena

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia eskuduna da honako espediente hau ebazteko, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuak onartzen dituen maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren 10.2 artikuluan xedatutakoaren arabera. Hark sinadura Enplegu Prestakuntza eta Diru Sarrerak Bermatzeko Zuzendariari eskuordetu dio, 2012ko ekainaren 5eko Ebazpenaren bidez.

Euskal Enplegu Zerbitzuaren Prestakuntza eta Diru Sarrerak bermatzeko Zuzendari PEDRO SANCHEZ AMADO jaunak ZIURTATZEN DU ..... ikastaroa eman dela, eta horrekin ados agertu da, martxoaren 23ko 395/2007 Errege Dekretuan eta Enplegurako Lanbide Prestakuntza Plana arautzen duen gainerako araudian ezarritakoaren arabera, eta egokitzat hartzen dituen egiaztapen-jardunak gauzatu ahal izango ditu.

....., ...(eko) ..... aren .....

JARRAIBIDEAK

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan prestakuntza-ekintza bakoitzaren likidazioa eskatzerakoan prestakuntza-erakundeek eta -zentroek enplegurako lanbide-prestakuntzako ikastaroetarako erabili behar duten eredua (inprimakia: V. ERANSKINA Prestakuntza Ekintzaren Gastuen aitorpena eta Azken Likidazioa).
Eredu hau makinaz (ordenagailua) bete beharko da eta hiru ale aurkeztu beharko dira.
Ezin da ezabapenik egin.

2.- IKASTAROAREN IDENTIFIKAZIOA

12 13 14 15 eremuak hasiera batean onartutako programazioaren datuekin beteko dira.

16 Prestakuntza-ekintzak Prestakuntzako sistema Informatikoaren (FSILBD) estatistika-zenbakikuntzaren arabera identifikatu beharko dira: urtea, probintzia-digituak eta zenbaki sekuentziala.

3.- IKASTAROAREN GASTUEN BANANTZEA

Ikastaroaren gastu bakoitza Prestakuntza Zentroaren esku dagoen dokumentazioaren arabera jasoko da (nominak, fakturak, dokumentu ofizialak eta gainerako egiaztagiriak).

21 Nominen, hartzekoen ordainagirien edo irakaskuntza-zerbitzuen ordainketen arabera, PFEZaren atxikipenak barne, baita, hala badagokio, gizarte-segurantzaren dokumentu ofizialen (TC2) arabera ere.

22 23 24 25 26 Martxoaren 7ko TAS 718/2008 Aginduaren II. eta I. eranskinen arabera.

31 Loturiko kostuen baturak ezingo du gainditu prestakuntza-ekintzaren kostuen % 20.

32 33 Deialdietan kostu horiek egiteko, egozteko eta egiaztatzeko betekizunak eta baldintzak ezarriko dira.

34 Bestelako kostuen baturak ezingo du gainditu prestakuntza-ekintzaren kostuen % 8.

4.- EMAITZAK

36 37 eremuek ez dituzte 12 13 eremuak gainditu inoiz

37 Enplegua lortzeagatik prestakuntza-ekintza utzi behar izan zutenak eta prestakuntza-ekintzaren iraupenaren gutxienez % 75ean bertaratu direnak hartuko dira zenbatu daitezkeen ikasletzat. Ekintzak hasi ondoren uzteak baldin badaude, ekintzak hasi dituzten parte-hartzaileen % 15era bitarteko desbideratzeak onartuko dira (Martxoaren 7ko TAS 718/2008 Agindua).

38 Fakturen hartzekodunei egindako azken ordainketa-data eta benetan egindako gastuak –justifikatuak eta diru-laguntzaren xede den prestakuntza-ekintza bakoitzari egotzitakoak– egiaztatzen dituzten balio bereko gainerako froga-dokumentuena.

39 Prestakuntza Zentroak jasoko duen diru-laguntza ezin da emandako guztizko orduak (36) zenbatu daitezkeen ikasle guztiekin (37) eta ikasle eta ordu bakoitzeko kostuarekin (14) biderkatuta ateratzen den emaitza baino handiagoa izan

5.- AUTOLIKIDAZIOA

41 42 eremuen kalkuluetarako bi zenbatekoen arteko txikiena hartuko da 35 39

VI. ERANSKINA

ENPLEGURAKO LANBIDE HEZIKETA, 395/2007 ERREGE DEKRETUA
LANBIDE HEZIKETAKO PRESTAKUNTZA EKINTZETARAKO DIRU-LAGUNTZAK
KOSTUEN ZIURTAGIRIAK

Ikastegia edo prestakuntza zentroa: ..... Ikastaro zk.: .....

Ordena zk.	Faktura data	Nomina Fakturaren zk.	Hartzekoduna/Jasotzailea	IFK/IFZ	Kostuaren kontzeptua	(4)	Guztizko zenbatekoa	Egotzitako zenbatekoa	Egotzitako ehunekoa	Ordainketa data
						21	0	0		
						21	0	0		
						21	0	0		
						Azpiguztikoa/ 21…	**0**	**0**		
						22	0	0		
						22	0	0		
						22	0	0		
						Azpiguztikoa/s 22 …	**0**	**0**		
						23	0	0		
						23	0	0		
						Azpiguztikoa/ 23 …	**0**	**0**		
						24	0	0		
						24	0	0		
						24	0	0		
						Azpiguztikoa/ 24…	**0**	**0**		
						25	0	0		
						25	0	0		
						25	0	0		
						Azpiguztikoa/ 25 ..	**0**	**0**		
						26	0	0		
						26	0	0		
						26	0	0		
						Azpiguztikoa/ 26…	**0**	**0**		
						1. Kostu zuzenak/ 27..	**0**	**0**		

Ordena zk.	Faktura data	Nomina Fakturaren zk.	Hartzekoduna/Jasotzailea	IFK/IFZ	Kostuaren kontzeptua	(4)	Guztizko zenbatekoa	Egotzitako zenbatekoa	Egotzitako ehunekoa	Ordainketa data
						28	0	0		
						28	0	0		
						28	0	0		
						Azpiguztikoa/ 28 ...	**0**	**0**		
						29	0	0		
						29	0	0		
						29	0	0		
						Azpiguztikoa/ 29.....	**0**	**0**		
						30	0	0		
						30	0	0		
						30	0	0		
						Azpiguztikoa/ 30 ..	**0**	**0**		
						2. Kostu osagarriak/ 31 ..	**0**	**0**		
						32	0	0		
						32	0	0		
						32	0	0		
						Azpiguztikoa/ 32 ...	**0**	**0**		
						33	0	0		
						33	0	0		
						33	0	0		
						Azpiguztikoa/ 33 ...	**0**	**0**		
						3. Bestelako kostuak/ 34..	**0**	**0**		

..... jaun/andreak, ...

Zentroko .....den aldetik, **ZIURTATZEN DU** II. Eranskinean dauden datu guztiak benetan egindako eta ordaindutako gastuekin bat datozela, zure esku dauden kontabilitate-liburuetan jaso baitziren, eta hori guztia diru-laguntzen arloko aurrekontuei buruzko indarreko legeriaren menpe geratzen da. Horren harira, organo eskudunek hemen egiaztatutakoari buruzko informazio osagarria eska dezakete, martxoaren 18ko 718/2008 TAS heziketaren azpisistema arautzen duen martxoaren 23ko 395/07 ED garatzen da.

.....(a)n, ... (eko) ..... aren ..... (e)an.

(Sinadura eta zigilua)

VII. ERANSKINA

AMORTIZAZIO-TAULA

..... jaun/andreak, ...

IFZ zenbakia duen : .....erakundeko..... .(kargua) den heinean, ZIURTATZEN DU ..... zenbakidun prestakuntza-ekintzari egotzitako gastuak (prestakuntza garatzeko erabilitako instalazioak, ekipoak, ikasgelak, tailerrak eta gainontzeko azalerak) bat datozela jarraian aipatzen diren banakako frogagiriekin.

Elementu amortizagarria	Hornitzailea	Hornitzailearen IFZ	Erosketa-data	Erosketaren zenbatekoa	Urteko amortizazioaren %	Urteko kuota	Egotzitako orduak	Egotzitako kostua[1]
					GUZTIRA			

Data:

Sin.:

[1] Egotzitako kostuaren kalkuluari buruzko xehetasuna erantsi.